

'Zapaldu marra'

Domekan antzestu zuten Oñatin

KULTURA, 24



UDaren eta Mondraren partiduak bertan behera

Aloña Mendik eta Bergarak kanpoan jokatu dute eta esku hutsik etorri dira

KIROLA, 14

Pernan Goñi

Mugikorrerako jokoa sortu du

KULTURA, 26



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko urtarrilaren 31 • 1. urtea • 43. zenbakia • 0,90 euro

MCCren sortzaileek Gipuzkoako urrezko domina eta plaka jaso dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxoaren erdialdera emango dizkie sariak. Ulgor sortu zutenei emandako saria, hain zuzen ere.

Alfonso Gorroñoigoitia eta Jose Maria Ormaetxeari Gipuzkoako urrezko domina eta Jose Mari Arizmendiarieta, Luis Usatorre eta Jesus Larrañagari, berriz, Gipuzkoako urrezko plaka emango die Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ulgor kooperatiba, gerora Fagor izan dena, sortzeatik eta kooperatibismoaren baloreak zabaltzeatik izandako meritua aitortu gura izan die Gipuzkoako Foru Aldundiak sarituei.

Menchu Gal margolariak ere jasoko du urrezko domina. **8**



Jose Mari Arizmendiarieta.



Jesus Mari Larrañaga.



Luis Usatorre.



Alfonso Gorroñoigoitia.



Jose Maria Ormaetxea.



AITOR LIZARRALDE

ELURRA IZAN DA ASTEBURUKO BIZIGARRIETAKO BAT ASKORENDAKO

Astean barrena gozoa izan ez den bezala, asteburuan askorendako gozagarri izan da elurra. Herrietan ez, baina inguruko mendietan oraindik gustura ibiltzeko moduko elurra dago. Hori horrela, debagoien-dar askok mendira elurretan jolastera joatea erabaki dute asteburuan. Domekan, esaterako, Arantzazun izugarritzko auto kopurua pilatu zen. Irratitik ere iragarri behar izan zuten, Arantzazura ez joateko, auto gehiegi zegoelako. Astean elurrik egingo ez duela iragarri dute. **8**

AHTren kontrako mozioa eta kale bilkura gaur, Bergaran

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak Bergarako osoko bilkuraren aurretik elkarretaratzea deitu du Bergarako plazan gaur, arratsaldeko 7etan. Ostean, Bergara Aurrera herri plataformak AHTren kontrako mozioa aurkeztuko du osoko bilkuran, AHT Gelditu! Elkarlana plataformak eskatuta. Mozioan Udalarari eskatuko diote AHTren proiektua geldiaraztea eta proiektuaren moratoria. Mozioa eskualdeko beste herri batzuetan ere aurkeztu dute. Alvaro Amman Garraio sailburuak, bestalde, *Euskal Y*-a defendatu du asteburuan, Espainiako gobernuaren jarrera salatuz. **4-5**

Hasi dira Europar Itunaren aldeko eta kontrako lehen mezuak zabaltzen **2-3**

Aizkorri-Aratz parke naturalaren gainean batzar informatiboa egingo dute bihar, Oñatin **9**

GEUREAN

- Ibarreko hamabost laguni Ibarretxe Planaren gainean galdetu diegu | 6-7
- AHT Gelditu! Elkarnala taldeak elkarretaratzea deitu du gaur, Bergarako plazan, 19:00etan | 4-5

Garabilarien mugagabeko greba nabaritzen hasi da, dagoeneko, gure errepideetan | 8

EUROPARENTZAT KONSTITUZIO BAT ERATZEN DUEN ITUNA



ARTXIBOA

Europar Ituna 2006ko azaroaren 20an sartuko da indarrean baldin eta Batasuneko 25 estatuetan onartzen bada.

OTSAILAK 20, EUROPAR ERREFERENDUMA | HAUTESKUNDE KANPAINA OFIZIALA EGUENEAN, OTSAILAK 3, HASIKO DA

Hasi gara Europar Itunaren aldeko eta kontrako lehen mezuak jasotzen

Debagoieneko alderdi politikoak hasi dira udaletan Europar Itunaren inguruko lehen mozioak aurkezten eta ezezkoaren aldeko eragileek egin dituzte lehen ekimenen deialdiak

Larraitz Zeberio

Eguenean, otsailak 3, emango zaio ofizialki hasiera hauteskunde kanpainari. Hamabost egunez, beraz, Europar Itunaren aldeko eta kontrako mezu ugari jasoko ditugu. Hori bai, hauteskunde kanpaina ofizial honetan Madrilgo Kongresuan ordezkaritza duten alderdi politikoek soilik izango dute parte hartze-

ko aukera. Gainerako eragile eta talde politikoek beste bide batzuk aurkitu beharko dituzte euren mezua helarazteko.

ITUNA ESKURAGARRI

Testua bere osotasunean irakurri nahi duen orok eskuragarri ditu Debagoieneko udaletxe eta udal bulegoetan Presidentziak eta Barne- zein Kanpo-Arazoetarako Espainiar Ministerioek gaz-

telaniaz argitaratutako 174 orrialdeko liburuxkak. Erreferenduma otsailaren 20an egingo da eta Espainia izango da Europar Itunaren inguruan erreferenduma egingo duen Europar Batasuneko lehen estatua.

LEHEN MOZIOAK

Debagoieneko alderdi politikoak hasi dira udaletan Europar Itunaren inguruko lehen mozioak aurkezten. Eskoriatzan, esaterako, EAJK, EAK eta EBK atzera bota zuten Itunaren alde alderdi sozialistak aurkeztutako mozioa. Arrasaten, aste honetan eztabaidatuko dute gaia PPK aurkeztutako mozio bat dela-eta, eta Elgetan, berriz, Aralarrek eramango du gaia udaleko osoko bilkurara. Zenbait herritan, gai-

nera, Elgeta eta Aretxabaleta kasu, hauteskunde-mahaiak osatuta daude. Honetaz gain, Debagoieneko ezetzaren aurkako bozka eskatzen duten sindikatu, tal-

de eta norbanakoek lan taldeak osatu dituzte. Bergaran manifestu bat adostu dute eta atxikimenduak biltzen ari dira dagoeneko. Barikuan, herriko plazan egongo dira.

KANPAINAKO HARRIBITXIAK

Aurkitu dugu gauza bitxirik aurre-kanpainan egunotan. *Referendum Plus* Espainiako Gazteria Kontseiluak aurkeztutako edari energetiko berria da. Ikasleei zuzendutako edaria ei da, aurreko europar hauteskundeek izan duten arrakasta gutxia aldatu nahian.

Luis del Olmo, Loquillo, Iñaki Gabilondo, Emilio Butragueño eta Johan Cruyff ere ahalegin berdinerako fitxatu ditu egunotan TVEk.

Erreferenduma otsailaren 20an egingo da Hego Euskal Herrian

Ezezkoaren aldeko eragileek mahai inguruak, hitzaldiak eta manifestazioak iragarri dituzte

EUROPARENTZAT KONSTITUZIO BAT ERATZEN DUEN ITUNA

Alderdi politikoaren iritzia Europako Itunari buruz

ALDEKO IRITZIAK |

• EAJ

Bergarako Imanol Bolinagak adierazi digu Europar Itunak aurrerapauso interesgarriak ematen dituela alor juridiko zein ekonomikoan eta dokumentu honek bere edukia sakontzeko eta hobetzeko aukera zabalik uzten duela. “Europar erakundearen autonomia indartzen du Itunak. Ez du autodeterminazio eskubidea aipatzen baina Funtsezko Giza Eskubideen Karta errespetatzera behartzen ditu Europako estatu guztiak. Euskal Herriak dituen oztupoak ez daude Europan, Espainian eta Frantzian baizik”.

• PSOE

Paco Garcia Arrasateko sozialistak azaldu digu Europar Tratua onartzea ona izango dela Espainiarendako zein Europa osoarendako. “Europar guztiak ados jarri gara hainbat gautarako: hiritarren eskubideak defendatzeko, enplegu galetarako, kanpo-arazoetarako... Estatuek gero eta botere gutxiago dute, Europak gero eta gehiago. Europarrak gara alemanak edo danimarkarrak bezala. Gure baietza garrantzitsua da erreparatu gehiago dituzten gainerako Batasuneko herriei begira”.

• PP

Arrasateko Itziar Lamarainek esan digu alderdi popularra 1978. urtetik ari dela Europar Batasunaren aldeko lanean. “Tratua hobea izan zitekeen, baina Europa osatzen duten nazio ezberdinen arteko proiektu komuna da. Kultura, hizkuntza eta ideologia mosaiko batean integratzeko aukera da. Askatasunez zirkulatzeko aukera izango dugu eta hiritar europarrak izango gara Batasuneko edozein lekutan. Bestalde, egungo estatuaren osotasuna bermatzen du proiektu sezesionista eta isolazionisten aurrean”.

KONTRAKO IRITZIAK |

• ARALAR

Ainhoa Larrañagak azaldu digu Europako Konstituzioak politika neoliberalak indartzen duela. “Ongizate estatuari mugak jartzen dizkio eskubide demokratiko, ekonomiko, sozial eta laboralak murriztuz. Ez du inondik ere autodeterminazio eskubidea onartzen ezta euskararen ofizialtasuna ere. Herriartasunari dagokionez, izaera erabat baztertzaila da. Etorrinekin oso baztertzaila da”.

• EA

Iñaki Galdosek azaldu digunez “itunak ez ditu Europan dauden estatu gabeko nazio eta herriak, ezta hizkuntza gutxituen ofizialtasuna onartzen. Ikuspuntu sozial batetik, Europa ekonomikoaren eta sozialaren arteko banaketa gero eta handiagoa da, eta ez du aurrera pauso nabarmenik suposatzen. Bi gauza horiek kontuan hartuta, guk, alderdi abertzale eta aurrerakoa izanda, ezezko botoa ematea erabaki dugu, beti ere, gure bokazio europar zale batetik”.

• EZKER BATUA - BERDEAK

Arrasateko zinegotzia den Ander Rodriguezen esanetan ez gauden benetako Konstituzio baten aurrean. “Estatuen arteko ituna da. Ez dira justizia eta solidaritate baloreak aintzat hartzen. Tratatuak merkatuaren, segurtasunaren eta belduraren Europa bultzatzen du. Helburua merkatua eta aberastasuna dira, lehiakortasun bortitza medio. Tratatuak ez du enplegu helbururik jasotzen. Estatu indartsuenen interesak indartzen ditu. Azpitik ez dago ez herririk ez hiritarrik”.

• BATASUNA

Batasunak herriz herriko ezezkoaren aldeko ekimenak bultzatuko ditu. Informazio kanpaina egingo du mahai inguruak sinadura bilketak eta hitzaldiak antolatuz. Nazio mailan, berriz, bost ekitaldi antolatuko ditu.

Ezezkoaren aldeko ekimenak ugaritzen ari dira

Ezezkoaren aldeko manifestuaren atxikimendu eta informazio kanpaina abiarazi da Debagoienean

Badira hiru aste Bergaran *Ezezkoaren aldeko ekimenaren batzorde eragilea* sortu denez geroztik. Herriko talde eta norbanakoei osatu dute ekimena eta ezezkoaren bozka eskatuz informazio kanpaina abiaraziko dutela jakinarazi dute.

Ezezkoaren aldeko manifestua ere adostu dute. Orain atxikimenduak lortzea dute helburu. “Bi hitzaldi egingo dira ibarrean”, aurreratzen du ekimeneko kidea den Aitor Arantzabalek. “Sinadura bilketa egingo dugu otsailaren 4an, barikua, Bergarako herriko plazan. Lantokietan ere informazio orriak banatuko ditugu. Otsailaren 12an Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak antolatuko ditugu eta bezperan txotx herrikoa egingo da”.

Oso arlo ezberdinetako pertsonak osatzen dute herri ekimen hau eta helburua ibarreko herri bakoitzean lan talde bana osatzea da. “Mahai inguruak egin dira eta gure bozeramailea europar munduari buruz ezagutza handia duen Antton Mendizabal, Toni-

no, izango da”. Lan talde honen inguruan informazio gehiago nahi duen edozein www.aurre-ra.org/ez web gunean sar daiteke. Bestalde, eguenero biltzen da lan taldea Artetsen iluntzeko 19:00etan.

ELAK ERE EZETZ

ELA sindikatuak ere ezezkoaren aldeko botoa eskatu du. “Europako Itunak eskubide murrizketak handiak ekarriko ditu”, ohar-tarazi du ELAko Egoitz Iturbek. “Enplegua eta lan eskubideak alde batera uzten ditu Itunak, eta ezegonkortasuna eta kaleratzeak ahalbidetzen ditu”.

Hau dela eta, ELAk informazio kanpaina burutuko duela jakinarazi du. Diptikoak banatuko dira ibarreko industrialde eta pabilioietan. Bestalde, ikastarok antolatuko dira delegatuen dako, eta ibarreko azoketan mahai informatiboak jarriko dira.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak ere ezezkoa bozkatzeko deia egin die euskaltzaleei. EHEk azpimarratu du Europako Itunak ez duela ez Euskal Herriaren aitortza, ez hizkuntza eskubideak ez eta hizkuntza komunitatearen izaera jasotzen. Hori dela eta, otsailaren 12rako Bilbon antolatu den manifestazioan parte hartzeko deia egin du.



Ezezkoaren aldeko manifestua kalean da eta hasi da sinadura bilketa.

Hautestunde mahaien osaketa

Debagoieneko udaletxeetan hasiak dira datorren otsailaren 20an egingo den Europar Itunaren erreferendumerako hauteskunde mahaiak osatuko dituzten herritarren izendatzen.

Aretxabaletako udalean, esaterako, urtarrilaren 28ko udal osoko bilkuran egin zen zozketa.

Hauteskunde mahaietan egotea egokitu zaien herritarren izenak datozen egunotan eman go dira ezagutzera.

Bestalde, urtarrilaren 28ra arte egon dira ikusgai hauteskunde erroldak ibarreko udaletxeetan.

Elgetako hauteskunde mahaiari dagokionez, jarraian jasotzen ditugun herritarrek osatuko dute hauteskunde mahaiak.

ELGETA

• Mahaiburua:

Josu de Vega Corrales

• 1. kidea:

Jose Ramon Estevez Lorenzo

• 2. kidea:

Jone Mujika Sarasketa

• Mahaiburuaren ordezkokoak |

1. ordezkoa |

Jesus Mari Berraondo Aranzeta

2. ordezkoa |

Maria Luisa Abanto Gonzalvo

• 1. kidearen ordezkokoak |

1. ordezkoa |

M. Milagros Ule Zulueta

2. ordezkoa |

Henrike Gorrotxategi Ubera

• 2. kidearen ordezkokoak |

1. ordezkoa |

Argoitz Aranzabal Garai

2. ordezkoa |

M. Carmen Agirre Bergaretxe

Europar Itun Konstituzionalak ez du autodeterminazio eskubidea onartzen

I 5.1. artikulua: “Batasunak estatu kideen berdintasuna errespetatuko du Konstituzioaren aurrean baita estatu horien funtsezko egitura politikoari eta konstituzio-egiturari lotuta dagoen nazio-nortasuna ere (...). Batasunak estatuaren funtsezko egitekoak errespetatuko ditu, eta bereziki estatuaren lurralde-osotasuna bermatuko du, ordena publikoa eta nazio-segurtasuna zaintzea xede dutenak (...)”.

Europar Itunak merkatua eta enplegua honela jasotzen ditu bere lehen xedeen artean

I 3.2. artikulua: “Batasunak barne-mugarik gabeko askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua eskainiko die herritarrei, eta lehia askea eta faltsutu gabekoa izango duen barne merkatua”. I 3.2. artikulua: “Batasunak garapen iraunkorraren alde egingo du lan, oinarritzat hartuta ekonomia-hazkunde orekatua (...) enplegu betea (...) eta lehia-kortasun handiko merkatuko ekonomia soziala (...)”.

Europar Itun Konstituzionalak Oinarrizko Eskubideak Gutuna printzipiotzat onartzen du

I 9.1. artikulua: “Batasunak II. zatia osatzen duen Oinarrizko Eskubideen Gutunean adierazitako eskubideak, askatasunak eta printzipioak onartzen ditu”. I 9.2 artikulua: “Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxiki-ko zaio”. I 9.3. artikulua: “(...) oinarrizko eskubideak (...) Batasunaren Zuzenbidearen osagai dira”.

AHT vs TRENBIDE SOZIALA

PROTESTA EKITALDIAK | ABIADURA HANDIKO TRENAREN KONTRAKO PROTESTALDIEK JARRAITU EGINGO DUTE

AHTren kontrako kale bilkura egingo dute gaur Bergaran

Osoko bilkuraren aurretik izango da Bergarako elkarretaratzea, 19:00etan, herriko plazan

Asteburuan ere protestaldiak izan dira: zapatuan manifestazioa eta mendi buelta domekan

Marijo Deogracias

Tren sozialaren aldeko manifestazioa egin zuten Bilbon zapatu arratsaldean, AHT egin nahi duten agintarien kontra. Sektore askotariko jendea elkartu zen hitzordura eta manifestazioaren antolatzaileek, Tren Sozialaren Aldeko Sareak taldekoek, salatu egin zuten erakundeek ez dutela tren ereduari buruzko eztabaidarik bultzatu. Manifestazioaren amaieran irakurritako oharrean esaten zenez, "AHTren lanak hasiko dituztela iragartzen jarraitzea ez da zilegi, herritarrok gure zergekin ordainduko dugun proiektuaren gaineko iritzirik emateko aukerarik izan ez dugulako".

TREN SOZIALARI BAI

Tren Sozialaren Aldeko Sareak ez du AHTren alde egiten, baina ez du trenaren kontra jotzen. Euren eskaria tren soziala egitea da; eztabaidatutako tren eredu baten alde egiten dute eta Jaurlaritzari egiten dioten eskari nagusia horixe da. Horretarako egin zuten manifestazioa Bilbon zapatuan.

TRENAREN IBILBIDEAN ZEHAR

Domekarako, berriz, Debagoienean zegoen deituta protesta-ibi-



Domeka goizean mendi buelta egiteko hitzordua jarri zuten AHTren ibilbidearen inguruan zehar. Bergarako Aldaiegia auzora jo zuten

laldia. AHTk Debagoienean ustez izango duen ibilbidean zehar mendi irteera egin zuten, Bergaratik abiatuta. Ez zen jende askorik animatu, baina hori gutxienekoa izan zen. Izan ere, martxara gehitu ziren gazteek gogoz ekin zioten bideari eta Bergarako Aldaiegia auzora hurbildu ziren, Gaittao baserri ingurura, eskualdearen ikuspegi zabala izateko.

Mendi buelta egin zutenek adierazi zuten, "Auzitegi Nazionalak atzera bota berri du jarritako helegitea; horren gainean esperantza handirik ez genuen, baina dagoeneko baieztatu digute nahi dutena egingo dutela". Horren haritik, gaur bertan, Bergarako mozioa aurkeztuko dutela iragarri zigten.

ELKARRETARATZEA ETA MOZIOA

Bergarako Udalak gaur egingo du osoko bilkura, eta, horixe aprobetxatuz, AHT Gelditu! Elkarlana taldeak mozioa aurkeztuko du, Bergara Aurrera herri plataformak lagunduta. Mozioak salatzen duenez, "ikusuntu sektorial eta partzial hutsetik soilik egiten dira azpiegiturak herri honetan; lehen eraikita dagoena hobetzeko asmorik gabe eta eginak dauden gai-

nontzeko azpiegiturak uztartu gabe". Hori dela eta, salatzen dute "Europar porrot egin duten azpiegitura formulak aurrerapenaren izenean gauzatu nahi" direla hemen, "baldintza eta orografia eredu horrek porrot egin duen eremuekin alderatuz askoz ere kaskarragoak izan arren". Mozio horretan esaten denez, "AHTk berez aspalditik esku artean dugun arazo hau biderkatu besterik ez du egiten eta egiazkoak ez diren argudioetan oinarrituta ari dira: ez du merkantzien ara-

zoa konpontzen eta egiten den inbertsioaren errentagarritasuna ateratzea ezinezkoa da".

Hori dela eta, Bergarako Udalarari gaur, eta Debagoieneko beste udaletan osoko bilkurak egiten dituztenean, bost puntuko eskaria egingo diote AHT Gelditu! Elkarlana taldekoek. "Herri bakoitzak bere erara egingo dio eskaria udalari", esan digute plataformako kideek. "Bergaran horrela egitea adostu dugu, eta, hortaz, astelehen arratsaldean, mozioa aurkezteaz batera, Ber-

Bergaran AHTri aurre egiteko mozioa aurkeztuko dute gaur

Bergara Aurrera herri plataformak AHT Gelditu! Elkarlana taldearen izenean aurkeztuko du gaur arratsaldean, Bergarako udaletxean, **AHTri aurre egiteko mozioa**. Mozio horretan lau eskari nagusi jasotzen dira: lehenengoan esaten denez, "Udalak Abiadura Handiko Trenaren proiektua gelditzea eskatzen du, kalteak ekarriko dituelako, gutxi batzuen mesedetan"; bigarren, "Euskal Herri osoko ikusmirarekin azpiegiturari buruzko eztabaida politiko eta soziala hasteko premia aldarrikatu eta bultzatu nahi du"; hirugarren, "Abiadura Handiko Trenaren moratoria eskatzen dio Udal honek Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Estatuko gobernuari"; laugarren, "Udal honek AHT gelditze-ko antolatzen diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko dei egiten die herritarrei".

Mozioa aurkezteaz batera, AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek hainbat galdera egingo dizkiote Bergarako alkate Victoriano Gallastegiri gaur arratsaldeko osoko bilkuran, erregu eta galderen atalean. Hitzordua: 19:30ak.

"AHTren lanak hasiko dituztela iragartzen jarraitzea ez da zilegi"

"AHTk aspalditik esku artean dugun arazo hau biderkatu besterik ez du egiten"

Bergarako udaletxean mozioa aurkeztuko du gaur AHT Gelditu! Elkarlanak

Elkarretaratzea deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak gaurko Bergarako plazan, 19:00etan



AITOR LIZARRALDE

mendigoizaleek domekan.

'Euskal Y'-a Irundik hasiko du Jaurlaritzak, Madrilek gura edo ez gura

Alvaro Amman Garraio sailburuak dio 'Euskal Y'-aren lanak hastea oso garrantzitsua dela, erabakia hartu barik dagoen arren; lanak atzeratuz gero, "Europako laguntzak galduko dira"

Espainiako gobernuak kaleratu duen Azpiegituren eta Garraioen Plan Estrategikoa dela eta, Garraio eta Herri Lan sailburu Alvaro Amman hainbat sektoreekin batzarrak egiten aritu da, plan estrategiko horrek "Euskal Herria deslokalizatu egiten" duela salatzen. Ammanek salatu duenez, "planak ez die lehentasunik ematen gure azpiegiturari. Jasotzen denez, Bilboko portua gainbehera dago, Gasteizko aireportua Burgos eta Logroñokoaren parekoa da eta Bilboko aireportua *metroporteroa* da. Bestalde, Mediterraneoko Trenaren alde-

ko apustua egingo du espainiar gobernuak". Horren harira Ammanek zera dio: "Historikoki katalanek Madrilgo erabakiguneetan presentzia handia izan dute, eta orain ere zerikusia izan du horrek". Hala ere, Garraio sailburuak dioenez, Jaurlaritzak ez du nahi aukera bien arteko lehian jausi, "nork bere funtzioa beteko duelako".

'EUSKAL Y'-ARI BAI

Ammanek dioenez, *Euskal Y*-a ez egiteak "Euskal Herria Europako garraio lotura estrategikoetatik kanpo geratzea ekarriko du. Gainera, Gaztela eta Leon eta Aragoiko gobernuak kezka agertu dute, eta, hori dela eta, elkarlan taldea eratzeko proposamena bideratu diote Jaurlaritzari". Alderdi ekonomikoak ere badu eraginik erabakian: "Europako kohesio fondoak ematen dituen

laguntzak galduko dira lanak 2007-2008 urte artean amaitzen ez badira". Beraz, "Jaurlaritzak Akitaniarekin duen elkarlan mahaia-ri jarraituz, frantsesek Dax-Irun zatia egingo dute eta Eusko Jaurlaritzak -Madrilen zain egon barik- lanak Irundik hasiko ditu, frantsesek ikus dezaten *Euskal Y*-ak jarraipena izango duela gure lurraldean".

'EUSKAL Y'-AREN ERAGINA

Jaurlaritzak hiru zatitan banatutako ikerketa kaleratu du las-ter batean; *Euskal Y*-aren eragin soziologikoa, ingurumenean izango duen eragina eta garapen ekonomikoa aztertu dituzte. Horren arabera, gizartearen %75ek garrantzitsutzat jotzen ditu lanak eta lanen alde daude %75,9; jasangarritasunaren aldeko azpiegitura izanik energia aurreztuko da eta Kiotoko Protokoloaren irizpideak segituko ditu; azkenik, lanak egiten diren bitartean, ia 7.000 lanpostu sortuko dira eta 3.500 milioi euro inbertituko dira; abian jartzen denean, berriz, 25 milioi lanordu aurreratuko dira, errepede istripuak %13 jaitsiko dira eta 4.200 lanpostu sortuko dira.

"Aragoik eta Gaztela eta Leonek elkarlana eskatu diote Jaurlaritzari"

garako alkateari galdera konkretuak egingo dizkiogu, eta herritar legez galderak egiteko daukagun eskubideaz baliatu".

JAURLARITZAREN JARRERA

Domekako egunkarietan, Alvaro Amman Jaurlaritzako Garraio sailburuak *Euskal Y*-aren alde egin du berriz ere. Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioak egindako Azpiegituren eta Garraioen Plan Estrategikoa hizpide hartuta, hainbat kritika egin ditu Ammanek eta "Plan Estrategikoak Atlantiko aldeko ardatza kategorian apalagoan jartzen du, gure bide, portu eta aireportuetako azpiegiturak kategoriaz jaisten ditu, eta trenbide-azpiegiturak atzeratzen ditu, 2020ra arte motelduz". Hori dela eta, Ammanek dio Euskal Autonomia Erkidegoak ez duela onartu Europako erronka berrien aurrean

"gure lurraldea deslokalizatzeratorren erabaki hori".

Ammanek adierazpen horiek egin ditu gizartearen hainbat sektoreekin izan dituen batzarraren ondoren. Antza denez, Garraio sailburuak AHTren kontrako hainbat sektoretatik egindako kritikak, informazio gardenik eza onartu eta azalpenak ematea erabaki du.

TRANBIAREN GAINEKO BATZARRA

Abiadura Handiko Trena ez da Debagoienean egitea pentsatzen den azpiegitura bakarra. Alvaro Amman Garraio sailburuak baieztatu egin du Debagoienak tranbia izango duela. Horren haritik, eguaztenean, otsailaren 2an, batzar informatiboa egingo du Aralarrek Bergaran. Berbal- dia kultura etxean izango da, 19:00etan.



ARTIBOIA

Alvaro Amman Bergaran, A-1 errepedearen lehenengo zatiaren inaugurazio ekitaldia.

www.memesa.com



OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 24
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

INDUSTRIA HORNIDURAK

IBARRETXE PLANA

IBARRETXE PLANA | HAINBAT ARLOTAKO PERTSONEI GALDETU DIEGU: POLITIKA, LITERATURA, HEZKUNTZA...

Hamabost debagoiendarrekin Ibarretxe Planaz jardun dugu

Zer esan ugari eragin du Planak. Haren gainean bi galdera zehatzi erantzuteko eskatu diogu elkarrizketatuetako bakoitzari

ANDER ETXEBERRIA |
SOZIOLOGOA

"Balio du arazoaren muina guztion aurrean jartzeko eta impassearen bizigarri"

1. Balioko luke, testuan datorrenez, hemengo subjektu politikoa onartuz, Espainiako Estatuarekin erlazioa aldatzeko, eta horrela, egileen esanetan, euskal arazoa konpontzeko. Balio du, bereziki abenduak 30eko bozketaren ostean, arazoaren muina guztion aurrez aurre jartzeko eta *impasse* egoeraren bizigarri moduan.

2. Kontuan hartuta proposamena egin duen gobernuaren negoziatzeko prest dela (bere proposamena oinarri hartuta bada ere), berri osatzen duen alderdi batek plana ez duela gustuko, eta oposizioko alderdi bik guztion artean hitz egitea eskatzen dutela, Madrilgo ezetzaren ostean zaila izango luke erreferendum batean gehiengo lortzea. Beste karta batzuk ere izango dituzte.

EDORTA ARANA |
EHU-KO IRAKASLEA

"Beldurra ematen dit antzezleak ez ote diren betikoak izango"

1. Ezagutzen ditut politika eta antzerkigintza konparatzen dituztenak. Oraingoan, berrikuntzak non dira: libretoan, eszenategian ala antzezleetan? Planean, testuaz gain, (zaila egiten zait Ardanza *hitzaurre* famatu hori sinatzen imajinatzea) eszenategia da berria. Baina, beldurra ematen dit antzezleak betikoak ez ote diren izango.

2. Ibarretxerena ala beste edozeinen idazlana izanik ere, irekia izan behar du. Izan ere, zerbait egin gura, lanean jarri beharra eta horretarako kemena ikusten da ugari. Kontra betikoak egongo dira, antzezlari klasikoaren jarraitzaileak, antzezle zaharkituak eta dena gaizki ikusten duten ikusle hutsak. Horrek baldintzatuko du etorkizuna; eta hauteskundeek, 18/98 makroepaiketarako, torturak, atentatuak...

JOSU TORNAY |
XAKE JOKALARIA

"Behingoz gaia ez da bakarrik ETA eta terrorismoa izan"

1. Hemen bizi garenok Euskal Herriko etorkizuna erabaki nahi dugula mahai gainean ipintzeko. Edukiekin ados egotea ala ez beste gauza bat da, baina halako planteamendu batekin Euskadiko eta Espainiako alderdi guztiek hitz egin behar izan dute Euskal Herriko egoerari buruz beste ikuspuntu batetik. Behingoz gaia ez da bakarrik ETA eta terrorismoa izan, egitasmo politiko bat baizik.

2. Seguru asko dagoen moduan ez da gauzatuko, baina beste proposamen batzuetarako zabalduko du bidea. Plana ezaguna izan baino lehen Euskadiko egoerari buruzko erreferendumaz berba egitea fikzio hutsa zen. Gaur egun ideiak ez dirudi hain ezinezkoa. Hori da lehen pausoa benetan halako erreferendum bat garatzeko.

MIKEL ARANTZABAL |
TXIRRITOLA ELKARTEA

"EAJk ahalegin guztia jarrita zuen eza gailendu zedin bozketan"

1. Ez dakit zertarako balioko duen. Zertarako balio beharko lukeen esango dut. Herri honetako alderdi politiko eta eragile sozial guztiekin, edo ahalik eta partehartze zabalenarekin, edukien eta gestioaren akordio bat lortzeko eta autodeterminaziori eta erreferendumari buruzko akordio nazional batera heltzeko.

2. Zail da ze etorkizun izango duen esatea, batetik, aurrez alderdi jakin batek, hau da, EAJk bere ahalegin guztia jarrita zuelako eza gailendu zedin bozketan, horrela izango baitzuen hurrengo hauteskundeetan gehiengoaren bila joateko ardatza. Bestalde, jakinda Madril gertatzen dena gertatzen dela ez duela amore emango, ez diot etorkizun handirik ikusten. Dena den, konpromisoa hor dago.

OSKAR ARANA |
ITZULTZAILEA

"Adostasun handiagoa beharko du elkarbizitzarako proposamena izango bada"

1. Dagoeneko badu balioa, Euskal Herriko hiru probintzitan gizartearen gehiengoak argi adierazitako gogoia erakunde baten bitartez adierazia den heinean.



Ander Etxeberria.



Edorta Arana.




Josu Tornay.



Iñigo Garitano.



Iñigo Alberdi.



Joseba Ugalde.



Maite Aristegi.



Aitor Arantzabal.



German Kortabarria.

Gehiengo horrek uste du Euskal Herriak baduela eskubidea munduko herrien artean nor izateko. Hala ere, elkarbizitzarako proposamena izango bada, adostasun handiagoa beharko du, elkarbizitza ezberdinen artekoa izaten baita.

2. Bere horretan gauzatuko denik ez dut uste. Baina bidea ireki du, gutxieneko beste adostasun batera iristeko. Adostasun berri horrek bakea ekartzea da guztion gogoia (ia guztiona). Batzuek ezin dute gehiengoaren nahia eragotzi, eta besteek ezin dute gizartearen beste erdia (ia erdia) baztertu. Horiek izan beharko lukete, nire ustez, proposamenak egin dezakeen bidearen ertzak.

IÑIGO GARITANO |
GIZARTE ONGIZATEKO TEK.

"Egoera desblokeatzeko tresna bilakatu dela esango nuke"

1. Balio praktikorik, printzipioz, gutxi. Madrilgo Diputatuen Kongresuan atzera botako dute. Eta nahiz eta Ibarretxek erreferendum deitu, legezko baliorik gabekoa izango denez, Autonomia Estatutu berri moduan ez da idatzita dagoenean indarrean sartuko. Aldiz, balio politikoa lehen mailakoa izan du, ez arautu nahi duenagatik, egoera politikoa astindu duelako baizik.

2. Autonomia Estatutu berri moduan batere ez, eta bigarren mailara pasatuko da, benetako garrantzia duena ez baita Jaur-laritzako hiru alderdiek adostu duten testua, normalizazio poli-

tikorako bidea baizik: esanguratsua da Batasunaren jarrera, PSOE-Estatuko Gobernuaren erantzun eta erreakzio neurtu eta prudenteak, Gasteizko gobernuaren osatzen duten hiru alderdietan sortu den ezustekoa. Egoera desblokeatzeko tresna bilakatu dela esango nuke. Ez da gutxi.

IÑIGO ALBERDI |
EAJ

"Espainiar estatuarekin berdinen arteko paktua planteatzen du"

1. Euskadiri hitza ematen dio nahi duen eredu politikoari buruz. Espainiar estatuarekin berdinen arteko paktua planteatzen du, eta horrek eskenatokiaren erabateko aldatzea dakar. Aukera historikoa.

IBARRETXE PLANA

1. Zertarako uste duzu balio duela Ibarretxe planak?

2. Zein etorkizun ikusten diozu?



Mikel Arantzabal.



Oskar Arana.



Blanca Roncal.



Ainhoa Larrañaga.



Itziar Lamarain.



Iñaki Galdos.

2. Gizartean eta mundu politikoan debata ireki du, eta agente gehienak mugitzera behartu ditu, egoera astinduz. Traba asko jarriko dituzte, noski, baina etorkizunera begira gure herriaren gatazka konpontzeko bidean ipini du.

JOSEBA UGALDE |
EZKER BATUA

“Gobernuak halakorik onartu ezean, erreferenduma deitu beharko dugu”

1. Elkarbizitzarako negoziazio prozesua planteatzen du Euskadi eta Espainiako gobernuen artean. Behingoz, EAJk jarrera hartzea erakutsi du. Tramitazio demokratikoa egin da, Estatutuak eta Konstituzioak finkatutako bide instituzionalak jarrai-

tuz. Estatutua ez da bermatu urte hauetan guztietan eta testu hori hobetzea planteatzen du Ibarretxe Planak. Bestalde, planteatzen ari den erreferenduma ez da autodeterminazioaren inguruko galdetara. Euskal gizarteak galdetu nahi zaiona da egungo Estatutuarekin konforme dagoen ala berritzea egokia ikusten duen.

2. Erreformaren bidea hartu dugu eta atzera bueltarik gabe. Ez gurean bakarrik, gainera. Hor ditugu Katalunia eta Andaluziako adibideak. Espainiako gobernuak horrelakorik onartzen ez badu, erreferenduma deitu beharko dugu gizarteak bere iritzia eman dezan. Euskal gizarteak Estatutuaren erforma eskatzen badu Madrilek ezingo du beste alde batera begiratu.

BLANCA RONCAL |
PSOE-EE

“Erreferenduma ilegala litzateke eta tentsio handiagoa eragingo luke”

1. Plana ez da baliozkoa ez dituelako alderdi politiko guztien ekarpenak jasotzen. Ibarretxek bere aspirazioak asetzen dituen testu bat jarri du mahai gainean eta gainerako alderdi politikoek ez dute oportaziorik egiteko aukerarik izan. Plan honek, gainera, ez du nazionalista guztien baiezkoa jaso. Gure Madrilgo alderdikideek ezetz esango diote astean.

2. Etorkizun eskasa ikusten diot planari. Errefusatu izango da Madrilen eta automatikoki desgertuko da. Gizarte osoaren babesa jasoko duen proposamen berria landu beharko dugu Euskadin. Orduan, eta ez lehenago, izango da onartua. Erreferenduma deitzea ilegala litzateke eta gure gizartean tentsio gehiago sortzea beste gauzarik ez luke ekarriko. Auzi hau, gainera, politikok konpondu behar dugu.

AINHOA LARRAÑAGA |
ARALAR

“Balio erantsi garrantzitsua dauka: herri honi subjektu izaera onartzen diola”

1. Proiektu honekin ez dugu guttiz bat egiten, baina uste dugu prozesu honek burujabetzan eta bake prozesuan aurrera egiten lagun dezakeela. Autodeterminazioa onartzen du. Ez da independentista garenon proiektu politikoa, gehiago da abertzaletasun moderatuarena, baina balio erantsi garrantzitsua dauka: herri honi subjektu izaera onartzen diola. Jauzi kualitatibo garrantzitsua elementu subiranistan. Bestalde, garbi dago euskararen gaineko tratamendu pobrea egiten duela eta ezkerreko hanka falta zaiola.

2. Uste dugu etorkizuna dagoela zalantza barik EAJ-EAK prozesu subiranista muturreraino eramatean. Ea oraingoan ausartzen diren pixka bat autonomiaren ideia albo batera laga eta Euskal Herriak daukan erabakitze eskubidea defendatzen, behar bada alderatze demokratikoa muturreraino eramanez eta desobediencia zibila martxan jarritz.

MAITE ARISTEGI |
SOZIOLOGOA

“Ikusten ari gara pizten espainiar nazionalismoaren alderik beltzena”

1. Legebiltzarrean onartutako Plana dugu eta eztabaida politikoa kokatzeko bidean doa. Onartu bezain laster ikusten ari gara nola ari den pizten espainiar nazionalismoaren alderik beltzena, eskubide zibil eta politiko oinarritzkoenaz ari garenean, politikaren eremu garbian, zelako kontraesanak dituzten, azken batean “demokrazia” bera erabat desitxuratuz.

2. Faktore askok aginduko dute, baina pisu berezia izango du EAJren jarrerak. Irromotasunez eta gutziakin kontatuz, Estatutu berri batez haratago, lortu beharko genuke, behingoz, espainiar gobernuak errespetatzen dezan euskaldunok askatasun eta demokrazia hartutako erabakia, eta ondorioz gatazka politikoa latz honi amaiera ematea.

AITOR ARANTZABAL |
BATASUNA

“Estatuarekin itun berria bilatzen du; Espainian komodo sentitzea”

1. Plana EAJren hauteskunde programa izatetik Estatuarekin konfrontazio politikoa irudikatzen duen eszenatokira eramatea lortu dugu. EAJ deseroso dago. Plana ez du balio Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera gainditzeko. Hiru herrialdetik egina, estatuarekin itun berria bilatzen du, estatutu berri bat; helburua da Espainian komodo sentitzea. Ekarpenguz nagusiak dira hitzurrean azaltzen diren hiru ardatzak: Euskal Herria zazpi herrialdez osatutako herria dela, herri galdeketara, eta autodeterminazioa.

2. Nahi al du EAJk plana aurrera ateratzea? Zaila da etorkizun opa-roa izatea, kontraesan itzela da Euskal Herriaren hitza eta erabakia ukatzen duten instituzio eta Estatuei defentsa eta laguntza eskatzea. Euskal Herriaren plana behar dugu eta hori da hain zuzen Nazio Eztatubidea Gunea egiten ari dena, isilean eta elkarriketaren bidea jorratuz; hor ba gure apustua.

GERMAN KORTABARRIA |
ELA

“Marko juridiko-politikoari eusteko orduan adostasuna dago indarren artean”

1. Balio du hasteko, Madrilen jarrera zein den erakusteko. Erakusteko baita ere, Euskadiko indar nagusien arteko adostasuna. Hau da, marko juridiko politikoa eusteko orduan adostasuna sakona dagoela. Gure ustez, zerbait gehiagorako ere balio be-

harko luke. Gauza izango balitz zabaltasunez, autodeterminazio eskubidearen alde dauden indar guttiak proposamen horren inguruan batzeko, behar adina aldaketekin, askoz gehiagorako balio luke.

2. Etorkizunerako aukera bakarra da benetan euskaldunok erabakitze eskubidea dugula aitortzen dugunon arteko adostasuna batzea. Horrek eskatuko luke orain arte egin ez den bezalako kudeaketa bat, partehartzaileagoa, eta beste indar batzuen partetik adostasunak bilatzeko jarra. Horren ondorioa balitz euskal gizartean erabakitze eskubidearen aldeko borondatea indartzea, urrats handia izango litzateke.

ITZIAR LAMARAIN |
PP

“Planak banaketa eta liskarra besterik ez dizkio ekarri gizarteari”

1. Banaketa eta liskarra besterik ez dizkio ekarri gizarteari. Haustaila da. Maila ezberdineko euskal hiritarrak sortzen ditu. Lehenengo mailakoak izango dira baldin eta proiektuaren bat egiten badute. Demokraziaren kontrakoa da.

2. Ez du etorkizunik, Ibarretxek eta EAJk biktimarena egingo dutelako Kongresuan jasoko duten ezezko borobilarekin. Kongresu horretan gehiago izango dira ezezkoaren alde egingo duten euskal diputatuak baiezkoaren aldekoak baino. Erreferenduma izugarriko hutsa irudituko litzaidake. EAJren barruan ere dagoeneko ari dira B plana antolatzen.

IÑAKI GALDOS |
EA

“Etorkizuna euskal herritarren gehiengoak erabakiko du”

1. Herri honetan urrats berriak emateko; batetik, autogobernuan, eta bestetik, euskaldun guztion ongizatea bermatze aldera. Izan ere, erakutsi digute zenbat eta autogobernu gehiago izan orduan eta ongizate maila handiagoa dela. Bestalde, bizi dugun egoera gatazkatsuari irtenbidea emateko.

2. Zaila, baina, dagoeneko, eragin positiboak izan ditu. Lortu du ezker abertzalea betiko posiziotik mugitzea eta alderdi sozialista proposamen zehatzak egiten hastea autogobernuaren gainean. Edozein modutan garbi dago proposamen honen etorkizuna euskal herritarren gehiengoak erabakiko duela.



ARTXIBOA

1955ean sortu zen Ulgor Gasteizen eta 1956an Arrasatera ekarri zuten egoitza, gero Fagor izango zena.

Urrezko domina eta plaka Ulgorren sortzaileei

Gorroñogotia eta Ormaetxeari domina eta Arizmendiarieta, Usatorre eta Larrañagari plaka ematea erabaki du Foru Aldundiak

Marijo Deogracias

“Kontuan izanda Jose Maria Arizmendiarietak, Luis Usatorrek, Jesus Larrañagak, Alfonso Gorroñogotia eta Jose Maria Ormaetxeak izan duten aitzindari jokabidea Arrasateko kooperatiben mugimendua sortu eta eratzeko, bidezkotzat jotzen da pertsona horiek jende aurreko aitortpena merezi dutela”.

Horrela erabaki zuen zapatuan Gipuzkoako Foru Aldun-

diaren diputatuen kontseiluak eta Gorroñogotia eta Ormaetxeari Gipuzkoako urrezko domina eta Arizmendiarieta, Usatorre eta Larrañagari Gipuzkoako urrezko plaka ematea adostu du.

50 URTEKO IBILBIDEA

1955ean sortu zuten Ulgor, Usatorrek, Larrañagak, Gorroñogotia, Ormaetxeak eta Ortubayk. Gasteizen hasi zuen ibilbidea dagoeneko mende erdi egin duen etxeko tresna elektrikoan

kooperatibak. Urtebetera Arrasatera ekarri zuten egoitza eta 1959an kooperatiba bihurtu zen, Arizmendiarietakaren pentsaerari jarraituz, “elkartasunean egindako lana eta heziketa aurrerabide sozialaren oinarriko bitarteko bihurtu, lanaren eta elkartasunaren baloreak sor-kuntzaren indar bilakatuz”.

SARI BANAKETA

Sarien banaketa martxoaren lehenengo hamabostaldian izango da, Jose Juan Gonzalez de Txabarri Aldun Nagusiak iragarri duenez.

Menchu Gal margolariari ere emango diote urrezko domina, sari hori jasoko duen lehenengo emakumea izanik.

• ‘JUEVES DEL COMPADRE’ JAIA ARRASATEN



AITOR LIZARRALDE

80 LAGUN INGURU BATU ZIREN EXTREMADURAKO ELKARTEAK EGINDAKO JAIAN

Ez zuten jai egun makal ospatu zapatuan Arrasateko Corazon de Encina elkarteko kideek. Quintana de la Serena herritik ekarritako Jueves del Compadre eguna ospatu zuten. Aita puntakoaren eta haren besotakoaren arteko harremana du oinarrian jaiak eta Debagoienean ahaidetasun horren ikurra karapaxoa den bezala, Extremaduran *rosqueteak* dituzte. Hori horrela, Extremaduratik ekarritako txerriki eta *calderetaz* gain, postrean *rosqueteak* jan zituzten, besteak beste.

• SAN BIXENTE JAIK UBERAN



AITOR LIZARRALDE

JENDE ASKOK PARTE HARTU ZUEN EKINTZETAN

Zapatuan lehiaketak izan ziren nagusi Bergarako Ubera auzoko jailetan. Tortilla lehiaketan hamar lagun aritu ziren. Miren Buruaga parte-hartzaile gazteena izan zen irabazlea; bigarren, berriz, Murtxe Olabe geratu zen, parte-hartzaile nagusiena. Uberarren gainditu gabeko irakasgaia ordea, mus txapelketa: 24 bikoteetatik bat bera ere ez zen bertakoa. Txapeldunak Ignacio eta Roberto izan ziren.

• ELURRA



AITOR LIZARRALDE

JOLAS EGITEN IBILI DIRA ASKO ASTEBURUAN

Lanerako ez da eroso, baina asteburuan elurra askoren gozagarri bihurtzen da. Jende ugari ibili da inguruko mendietan elurrarekin jolas egiten: eskiatzen, snow taularekin... Arantzazun, esaterako, auto andana izugarria egon zen domeka goizean; irratitik ere mesez auto gehiago ez igotzeko eskatu behar izan zuten.

• GARABIEN GREBA



AITOR LIZARRALDE

• GUREAN ERE BADIRA AUTOAK BIDE BAZTERREAN

Hasi gara nabaritzen ibarreko errepideetan ere garabiak greban daudela. Elgeta, Arrasate eta Antzuolako errepideetan, esaterako, badira matxuraturutako zein istripua izandako autoak bide bazterrean. Urtarrilaren 21ean hasi zuten mugagabeko greba eta estatuan bertan behera laga duten arren, EAEko garabilariek eutsi egingo diotela adierazi dute.

Albiste izango da

DEBAGOIENA | EGUBAKOITZEAN AURKEZTUKO DUTE

Urdanpileta eta Ezpeleta Euskadiko Mendi Lasterketa Selektzioan

Otsailaren 4an, Euskadiko Mendi Lasterketa Selektzioa aurkeztuko dute Donostian, Foru Aldundiaren areto nagusian. Selektzioa zazpi korrikalarik osatzen dute, tartean bailarako bik: Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak eta Asier Urdanpileta oñatiarrak, hain zuzen ere. Eurekin batera daude Arkaitz Zamakona, Gaizka Itza, Isa Casado, Joxe Mendiola eta Alicia Romero. Bestalde, ekitaldian egongo dira, besteak beste: Jaurlaritzako kiroletako zuzendari Jose Ramon Garai, Aldundiko kiroletako zuzendariak eta Antton Bandres Euskal Mendizale Federazioko lehendakaria.

ANTZUOLA | EZ DAGO IZENA EMATEKO MUGAEGUNIK

Bost umerekin zabalduko dute gaur, astelehena, haurtzaindegia

Gaur zabalduko dute herriko haurtzaindegia eta bost umerekin hasiko da. Egunean hamaika orduz egongo da zabalik, 07:30etatik 18:30etara, hain zuzen. Bi hezitzaile daude, bata jardun osoan eta bestea jardun erdian eta umeak bi taldetan banatuko dituzte: bate-tik, 0-1 urtekoak eta bestetik, 1-2 urtekoak. Salneurriak ere jarri dituzte umeek haurtzaindegian egondako denboraren arabera (gehienez zortzi orduz egon daitezke): egunean bost ordu edo gutxi-ago egiten dutenei, hilean 135 euro kobratuko zaizkie eta bost ordu-tik zortzira bitartean egoten direnei, 180. Izena emateko epea ez dute itxiko eta interesa duenak haurtzaindegian bertan eman behar-ko du izena. Otsailaren 11n egingo dute inaugurazio ofiziala.

BERGARA | SANTA AGEDA ERE OSPATUKO DUTE

Jaiak ospatuko dituzte San Blas auzoan egunenetik domekara arte

Eguenean, otsailaren 3an, San Blas eguna da. Hori horrela, jaiak ospatuko dituzte Bergarako San Blas auzoan. Eguenean hasiko dira ospakizunak: 11:00etan meza nagusia egongo da ermitan eta urtero bezala opilak bedeinkatuko dituzte. Gainera, egun osoan egongo da zabalik ermita bertaratu nahi duenarendako. Egubakoitzean, berriz, auzo afaria egingo dute 20:30ean, eta trikitilariak ere han izango dira ordu txikiak arte. Zapatuan, berriz, otsailaren 5ean, Santa Ageda eguna da eta hori ere ospatuko dute auzotarrek. 12:00etan, ohi bezala, San Blas ermitako anaideek batzarra egingo dute eta 16:00etan, mus txapelketa egongo da, XVII. San Blas saria, hain justu. Izene-matea 15:30ean hasiko da. Domekan, besteak beste, Iñaki eta Inazio Perurena aita-seekek erakustaldia egingo dute.

OÑATI | 19:00ETAN, KULTURA ETXEAN

Aizkorri-Aratz parke naturalaren gaineko batzar informatiboa bihar

Aizkorri-Aratz parke naturalaren gaineko batzar informatiboa egongo da bihar, martitzena, 19:00etan, kultura etxean. Hizlariak hauek izango dira: Mendi eta Ingurumen zuzendari Joxe Mari Aldanondo, Parke Naturalen arduradun Iñaki Aizpuru eta Gipuzkoako Aldundiko hainbat teknikari. Hitzaldiaren helburua da Natura Baliabideen Antolaketa Planaren eta hartutako erabakien berri ematea, izan ere, plan horrek lotura zuzena du Aizkorri-Aratz parke naturalarekin. Bestalde, parkearen proiektua ikusgai dago udalean otsailaren 22ra arte.

BERGARA | GAUR ITXIKO DUTE

Masterreka kaleko 3tik 9ra arteko garajeetarako sarrera itxiko dute

Gaur, astelehena, itxiko dute Masterreka kaleko 3 zenbakian hasi eta 9ra arteko garajeetarako sarrera. Ur zikinak batuko dituen kolektoreko lanak dira ixteko arrazoia. 20:00etan ekingo diete lanei garajeen sarrera parean (Bordatxo elkartearen ondoan). Hori horrela, Udaltzaingoa adierazi du, gaur goizeko lehen orduan autoa garajetik ateratzea komeni dela. Izan ere, behin lanak hasten direnean, ez da egongo aukerarik ez autoa sartzeko ezta ateratzeko ere.

Enpresa eraikitzailearen esanetan, itxierak aste bete inguru iraungo du.

Hitzorduak



BIDEZKO MERKATARITZA ETA HERRI TXIROEN KANPO ZORRA | Bi gai horien gaineko kanpaina aurkeztuko dute bihar Antzuolan

Euskal Herriko plataforma batek herrialde pobreen kanpo zorraren eta bidezko merkataritzaren gaineko kanpaina antolatu du, eta Antzuolan ere egingo dute, Anelkar taldearen laguntzarekin. Anelkarrek bidezko merkataritzaren aldeko ekintza asko egin izan ditu, azokak, esaterako.

Hain zuzen, bihar, martitzena, Josetxo Rivierrek hitzaldia egingo du Olanan etxean, 19:00etan. Eta asteburuan, sinadurak bilduko dituzte, Eusko Jaurlaritzan bi gai horien gaineko proposamen bat aurkezteko. Hilaren 5ean San Blas egongo dira eta 6an, Herriko Plazan.

ANTZUOLA |

• Gurasoendako hitzaldia izango da egunean

Nola finkatu arauak gure seme-alabei izenburuko hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak egunean, otsailak 3, eskolako aretoan, 18:00etan. Zelako arauak ipini, arauak betetzeko baldintzak, akordioa eta bestelako gai batzuk landuko ditu psikologoak.

ARETXABALETA |

• San Blas eguna ospatuko dute egunean

Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuente ermitan meza entzungo dute 10:30ean; gero, jakiak bedeinkatuko dituzte. Bedeinkapena egingo dute baita 19:00etan ere.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur, astelehena

Osasun etxean izango dira, 16:00-20:00 orduetartean.

• Tabernen arteko mozorro lehiaketarako izenematea

I. tabernen arteko mozorro lehiaketa deitu du Loramendi elkarteak, eta izenematea epea zabalik dago otsailaren 3ra bitartean. Taberna bakoitzak gura duen estiloa erabil dezake, baina derrigorrezko gaia da euskal mitologia.

• Tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko dute

Asiako hego-ekialdean izan zen tsunamiak kaltetutakoei

laguntzeko dirua batuko du Udalak. Herritarrek dirua eman dezaten kutxa bat jarri dute udaletzeko harreran. Otsail osoan egongo da han.

• Patinaje eta skate ikastaroetan izenematea

Udal Kirol Sailak antolatu ditu patinaje eta skate ikastaroak. Patinajekoan bi maila egongo dira: hastapena eta hobekuntza. Zapatutan izango da. Kirol zerbitzuko abonatuak 20 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, berriz, 24. Skate ikastaroan maila bakarra landuko dute, eta zapatuetan, 13:30-14:30, izango dira eskolak. Kirol zerbitzuko abonatuak 9 euro ordaindu behar dute hilean; gainerakoek, 12. Ikastarootan izena emateko, deitu 943 71 26 28 telefonora otsailaren 9a baino lehen.

ARRASATE |

• Zikloturisten lizentziak berritu edo eskatzeko epea

Arrasateko Zikloturistek zabaldu dute lizentziak berritzeko edo bazkide berriak egiteko epea. Horretarako, jo euren egoitzara (Ignacio Zuloaga 10), 18:30-20:30, edo deitu 943 79 94 49 telefonora.

• Arizmendi ikastolaren batzar informatiboak

Arizmendi ikastolak ate ireki egunak deitu ditu, matrikularioa dela eta. Gaur, astelehe-

na: Umezaintzan, Basabeazpin eta Jose Aranan.

• Bedoñabe Haurreskolan aurre-matrikulazio epea

Eskola horretan apiril-maiatz aldean hasi gura duten 0-2 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazioa zabalik dago. Otsailaren 11ra bitartean duzue horretarako aukera San Andresko Alfontso VIII. kalean edo 943 79 76 86 telefonoan.

• Udaltarren aldeko taldearen prentsaurrekoa

Udalatx zulatzearen aurkako plataformak prentsaurrekoa egingo du gaur, astelehena, Monterronen, 18:30ean.

BERGARA |

• Azken eguna zikloturista lizentzia berritzeko

San Blas jaiak ospatuko dituzte Murinondo auzoan. Eguenean, hilak 3, meza nagusia entzun eta opilak bedeinkatuko dituzte; gero, salda eta txorizo jana izango dira. Egubakoitzean, auzo afaria eta dantzaldia izango dituzte.

ESKORIATZA |

• Eski irteera bana deitu dute otsail eta martxorako

Otsailaren 12an eta 13an eta martxoaren 5ean eta 6an eski irteera bana egingo dute Eskoriatzako kirol elkarteak mendiko sailekoek. Argibideetarako, deitu 943 71 43 27 telefonora.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Eguraldi txarraren ondorioz errepidean blokeatuta

Gure lehenengo txistuan hainbat mezu batuko ditugu; izan ere, azken egunotan irakurle asko kexatu da eguraldi txarrarengatik errepidean blokeatuta gelditu delako. Jasotako mezu batek honela zioen: "Bost ordu eman nituen martitzenean Bergara eta Arrasate arteko bidean, istripu bat zela-eta. Bost ordu! Ez zegoen ezer egiterik?"

Auto-ilara berean egondako beste irakurle batek Ertzaintzaren jarrera salatu nahi izan du: "Zergatik egon ziren autoan sartuta horrenbeste denboran auto barrutik mugitu ere egin gabe! Lanera nindoan eta nik neuk hurbildu behar izan nuen euren gertatzen zen galdetzeko!"

Oñatiko beste irakurle batek, aldiz, egunean etxean gelditu behar izan zuela jakinarazi digu, errepideko elurra kendu ez zutelako eta etxetik ateratzeko modurik izan ez zuelako. "Denok genekien elurra zetorrela. Esan eta esan aritu dira hedabide guztietan. Zergatik ez da neurririk hartzen horrelakoak gertatu baino lehen? Oñatin, elurra kentzeko makina ez zen auzoetara iritsi!"

• Pesa autobus konpainiaren euskara

Txistuekin jarraituko dugu, baina oraingo honetan euskara maila kaxkarra dela-eta. Irakurle batek txistua bidali digu Pesa autobus konpainiarendako. Urtarrilaren 27an, eguna, autobus konpainia honen webgunean sartu zen eta honako ohar hau irakurri zuen: "Elurra eta izotzagatik hunkitutako lineak. Oharra: klima kondizioak aldakorak dira eta aurreikuspenak gaurko egunean okerrera joan dezake esaten dute, horrengatik serbitzuak atzerapenak jasan dezakete heldueran edo irteeran, baita ere errepidearen baldintzan ibilaldea geldiarazten".

Sarean harrapatuta

Dendak domeketan ere zabalik; zein iritzi?

Eusko Jaurlaritzak dendek urtero zortzi igande edo jaiegunetan irekitzeko legea prestatzen ari da. *Jaietan denok jai* kanpaina abiatu zuten ELAK eta LABek azaroan. Sindikatuek salatu dute saltoki txiki askok

ezin izango dutela lehia jasan, enplegu asko desagertuko direla eta merkataritza gune handietako beharginen lan baldintzek okerrera egingo dutela. Gai horri buruzko eztabaida egon da *Goiena.net*-en.

DOMEKETAN JOANGO NINTZATEKE EROSTERA

Beste leku batzuetan ohikoa da zabaltzea. Nik ez dut izaten denbora askorik erosketak egiteko eta domeketan zabaldua denbora izango nuke. Zerbitzu guztiak doaz 24 ordu eskaintze aldera. Niri ongi iruditzen zait.

Ana / www.goiena.net

DENDA TXIKIENTZAT KALTEA EKARRIKO DU

Niri ostera ez zait halako ideia ona iruditzen. Egia da nik ere ez dudala denbora askorik erosketak egiteko, eta ikuspuntu horretatik abantaila izan daiteke.

Baina, kontuan hartu behar dira dendetako langileak ere. Egun bat jai edukitzeko eskubidea edukiko dute ba? Denda handietan, nahiko erreza dute; jende gehiago hartu. Baina, zer gertatuko da denda txikiek? Aitz / www.goiena.net

JENDEAK ERABAKI DEZALA NON EROSI

Jendea askatasuna eman behar zaio nahi duena edo komeni zaiona egiteko. Aste bukaeran komeni bazaio erosketak egitea, zergatik ez? Zabaltzeko aukera eman eta gero bakoitzak askatasunez erabaki dezala non erosi nahi duen.

Ni alde / www.goiena.net

EZ DUGU HAINBESTE EROSTOKO BEHARRIK

Domeketan dendak zabaltzea ez da beharrezkoa. Kontua ez da ondo edo gaizki etorriko litzaikeela, baizik eta ez dagoela beharrik. Hori bai, zabalduko balituzkete... Jendeak erosiko luke, noski! Astean zehar erosi beharrean domekarako utziko genituzke-eta gauzak. Eta nik ez dut uste hain estu ibiltzen garenik astean zehar. Nahiz eta batzuk hala ez pentsatu, ez daukagu horrenbeste erosteko beharrik!!! Nahi izatetik behar izatera bide handia dago. Kontsumo hutsa da dena.

Inaxio / www.goiena.net

ERRESPETUA MEREZI DUGU BEZEROK ERE

Domeketan zabaltzea ez da izango beharrezkoa agian, baina bai da beharrezkoa dendaren ordutegia egokiagoa eta zabalagoa izatea. Niri, behintzat, ez zait ongi iruditzen dendari askok egiten dutena; beraiek karteletan iragartzen duten ordutegia ez errespetatu, nahi dutenean zabaldu eta nahi dutenean itxi. Hori ere ez da kontua.

Eskubideak bai, errespetatu behar dira, deskantsatzeko denbora eta hori dena, baina bezeroari adarra jo? Hori ere ez, mese dez.

Inaxio / www.goiena.net

DOMEKETAN ZABALTZEA EZ DA BEHARREZKOA


Ni Mexikon bizi naiz eta hemen egunero daude zabalik dendak, eguneko 24 orduetan, gainera. Gezurra da igandeak erosketak egiteko behar ditugula.

Astean egin daitezke erosketak, baina domeketan zabalik daudela jakinda, erosketak atzeratu egiten ditugu eta ez direla garrantzitsuak iruditzen zaigu.

Nobitak / www.goiena.net

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu domeketan ere dendak zabalik egotea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Urte hasieraz gero eraikuntzan zortzi lan istripu izan dira Euskal Herrian. Zergatik gertatzen dira? Norena da errua?



XABIER GALLASTEGI | ARKITEKTO TEKNIKOA

Lantokia aldakorra da eta arriskua handia da. Guri, produktibitatearen eta segurtasunaren arteko borroka dagokigu. Jakin badakit langileek ez dituztela beti segurtasun neurriak onartzen, kontratistek presa izaten dutela lana amaitzeko eta promotoreek ez dutela segurtasuna sustatzen.



EGOITZ ITURBE | ELA

Egoera laborala oso prekariora da gaur egun. Langileen eskubideak ez dira errespetatzen eta prestakuntza txikia dago. Gauzak horrela, errua ez da langileena. Langileak lanera joateko eskubidea du eta lanetik itzultzeko ere bai. Administrazioa eta patronala gelditzen dira, beraz.



BITTOR ALBERDI | ARTZAMENDI ERAIKUNTZAK

Faktore asko dira. Guk, Jainkoari esker, ez dugu istripurik izan urte hauetan guztietan, baina lantalde beterranoarekin aritzen garela. Oso prekariora aritzen da jendea, epeak onartezinak dira, gremio asko ibiltzen gara batera, bata bestearen gainean eta horrela ez dago lan egiterik.



MAOLO RODRIGUEZ | LAB

Zorroztasun handiagoa beharko litzateke segurtasun neurriekin. Arduragabekeria asko onartzen dira. Enpresaburuek produkzioa jartzen dute beti aurretik. Langileak soldataren truke egiten du lan. Istripuak eta heriotza ez dira soldatan sartzen. Zer gertatu da Maltzaga-Urbinan?

Egunkarietako harribitxiak

ZABORRAREN PREZIOA
Atzo, *Deiak*, zaborra ateratzeak duen prezioaren gaineko erreportajea egin zuen. Laster, igo egingo da, zerbitzuaren koste erreala ordaintzeraino. Gaur egun, baina, herriaren arabera prezio ezberdina ordaintzen dugu Gipuzkoan. Adunan, esaterako, 28,81 euro ordaintzen dute eta Zumaian, 51,60. Gure ibarrean guztiok ordaintzen dugu berdin: 51,60.

'Deia'
2005-01-31



EUSKAL HERRIAREN ARGAZKIA ESKURA
Gaindegia behatokiaren gaineko erreportajea egin zuen atzo *Berria* egunkariak. Webgune erabilgarria eratu eta egindako lana hedatzea du helburu Gaindegiak; oinarri sendoa du horretarako, Datuen Talaia, Euskal Herriari buruzko informazio guztia batu duen tresna. Atariaren helbidea www.gaindegia.org eta euskal herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiaren

informazioa dago eskuragarri, lau hizkuntzatan: euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez. Euskal Herriko datuen zipiritzinak jaso ahalko dira hor. Bestetik, www.datutalaia.org helbidea arduratuko da Euskal Herriaren gaineko eta herrialde, eskualde eta udalerrri bakoitzeko ahalik eta informazio gehien eskaintzen.

'Berria'
2005-01-31



Zorroztailea

Gizartearen erresistentzia



Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroa.- Jose Saramago nobelagile portugaldarrak (...) demokraziarik ez dagoela mantendu zuen, eta halaber, adierazi zuen beharrezko aldaketa ez dela egitura politikoetatik etorriko, baizik eta gizartearen erresistentziaz eta gizarteak botere-egiturak berritzeko daukan gaitasunetik.

'Gara' | 2005-01-29

ondoren, hausnarketa eta haserrea: lanera arinago joateko, zer daukat, autopista ala trena? Zergatik horrenbeste baliabide, argi eta sarbide saltoki handietarako? Zergatik ez produktuen ontzi-raketa arautu?

Alegia, Sailak kezka dauka, herritarra arduratsu jokatzeko saiatzeko tresnak eta baliabideak Sailak dauka. Gizarte zibilari egokitu zaio kontzientzia ekologikoaren arabera jarrerak hartzea, trena hartzea, saltoki handiak ez jendez gainezkatzea, betiko hautsa kentzeko trapua erabiltzea. Baina botere politikoa, hitzez harantzago, eginkizunekin kontrakoan tematzen bada, jai dauka gizarte zibilak; gizarte zibilaren gehiengoak botere politikoari besterik exijitzen ez dion bitartean, behintzat. Eta hori geurean, gaur egun, ez da gertatzen.


Elena Laka

Hitzok Ingurumen Sailak norberaren aztarna ekologikoa kalkulatzeko pasa berri digun testa gogorarazi zidaten. Saila kezkatuta dago, euskaldun bakoitzak sortzen duen aztarna ekologikoa eusteko 2,5 planeta beharko lirakeelako. Gehiegizko kontsumoaz jabetu nahi gaituzte, eta horretarako testa: zenbat erabiltzen dugun autoa, produktuen ontziratzeari begiratu diogun, saltoki handietan erabilerak bakarreko produkturik kontsumitzen dugun... Ondoren, kontzientzia ekologiko txikitxo bat izanda ere, erruduntasuna: autoa egunero, lata eta kartoia duten produktuak, saltoki handiak, umeentzako oihalak, ogitartekoa biltzeko papera, paperezko serbiletak, hautsa harrapatzen duten paperezko zapiak... Eta erruduntasunaren

"Gizarte zibilari egokituko zaio kontzientzia ekologikoaren arabera jarrerak hartzea: trena hartzea..."

"Baina botere politikoa, hitzez harantzago, eginkizunekin kontrakoan tematuz gero, jai dauka gizarte zibilak"

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-1-30

Egunkarietan irakurri dugu

'El Diario Vasco'

ANOETA, REALAREKIN

Lehenengo mailan jarraitzea da garrantzitsuena eta horregatik bazkideek, akziodunek eta zaleek erabateko laguntza eman behar diete jokalariei eta teknikoei. Realeko zaleek kamiseta txuri-urdina defendatzen duten jokalariek guztiak salbuespenik gabeko eskaintak babesak izan behar du aurrerantzean Realaren aktibo baliotsuena.

Editoriala
2005-01-30

'Berria'

EUSKADI, 'DESLOKALIZATZEKO' BIDEAN

Euskadi beti izan da Europa erdialderako iraganbide, eta, hortaz, ezin da ulertu, Azpiegituren eta Garraioen plan Estrategikoak nola ahantz dezakeen mendeetako historia, gure lurraldearen zubi izaera alde batera utzita. Garbi dago hori nola egiten den. Aurrena, azpiegiturak izan dezaket balio guztia kenduz, Euskal Y-aren kasuan, esaterako.

Alvaro Amman
2005-01-30

'El Mundo'

MARAGALLEN ZENTRIFUGADOREA

Maragallek PSOeri adorea eskatu zion, debate konstituzionalean PPren presioei amore eman ez diezaien. PPren laguntza beharrezkoa izango ez balitz bezala karta magna aldatzeko. (...) PSOEek, orain arte, Maragallen aldarrikapenaren aurrean eta haien bazkide ERCren aurrean amore eman du amore. Aurre egiteko garaia da.

Editoriala
2005-01-30

'Gara'

EUROPAKO ARRAZOIAK BERE KONSTITUZIOAREN KONTRA

Eskubide berdintasunaren eta herrien autodeterminazioa defendatuko dituen Europa demokratiko baten alde borrokatzen dugulako. Konstituzioak ukatu egiten die nazionalitate eta errealitate soziokultural askori euren identitatea eta gai handien aurrean erabakitze eskubidea.

Antxon Mendizabal
2005-01-30

KIROLA

- Eskoriatzak, ondo jokatu arren, ezin izan zion Zarautzi irabazi | 19
- Bergarako bikote pilotariak gertuago du Euskal Ligako final-erdiak | 20



Jonathan Perez
pertika jauzilari
arrasatearrarekin
berba egin dugu
haren ibilbideaz | 21

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

REALA

0-4

VILA-REAL

Reala | Riesgo, Lopez Rekarte, Labaka, Alkiza (Xabi Prieto 45. min.), Karpin, Aranburu, Gabilondo, Mikel Alonso, Rossato, Kovacevic eta Luiz Alberto.

Vila-real | Reina, Peña, Quique Alvarez, Javi Venta, Arruabarrena, Sorin, guayre (Jose Mari 72. min.), Marcos Senna, Font (Battaglia 65. min.), Riquelme (Cazorla 87. min.) eta Forlan.

Golak: 0-1 Forlanek 56. minutuan. 0-2 Riquelmek 75. minutuan. 0-3 Forlanek 81. minutuan. 0-4 Josemarik 90. minutuan.

Epailea: Muñiz Fernandez. Nahiko ondo bete zuen lana. Hala ere, txartel gutxi ateratu zituen, eta jokaldi baten baino gehiagotan faltan igarri ziren txartelak.

Bestelakoak: Anoeta erdiraino bakarrik bete zen. Nahiz eta hasieran, aspaldiko partez, Relaren aldeko oihuak entzun, amaieran zapi zuriak izan ziren nagusi.

Bikain

ROSSATO

Aspaldiko partez brasildarra zelaira itzuli zen. Hura izan zen erasoan min handien egin zuena, eta hark min hartu eta gero etorri zen Realaren gainbehera.

Kaskar

REALAREN DEFENTSA

Lehen zatian bikain ibili ziren. Luiz Albertok baloi pila lapurtu zituen eta Rekarte eta Rossato ondo igo ziren gora. Bigarren zatian, baina, penagarri ibili ziren guztiak, eta lau gol jaso zituzten.

Esandakoak

“Agian 0-4ko emaitza gehiegizkoa da, baina Vila-real hobea izan da partidu osoan”.

MANUEL PELLEGRINI |
VILA-REALEKO
ENTRENATZAILEA

“Borrokan jarraitu behar dugu egoerari buelta emateko, eta horretarako igandetan hobeto jokatu behar da”.

BITTOR ALKIZA |
REALEKO JOKALARIA



Juan Roman Riquelmek bikain bideratu zituen taldekideak bigarren zatian lau gol egitera. Hark ere egin zuen berea.

REALA | REALAK 2005EAN PUNTURIK BATU GABE SEGITZEN DU

Bigarren zatian Vila-real Realaren gainetik pasa zen



Jokin Etxebarria

Riquelme eta konpainia zetoze-la ikusita eta Nihatek ez zuela jokatu jakinda, Jose Mari Amorortuk taktika aldatzea erabaki zuen. Bartzelonan erabili zuen *tribote* bera erabili zuen, eta, azkenean, emaitza berarekin.

Lehen zatian partidu polita ikusteko aukera izan zen. Bigarrenetan, Realak hobe zebilela ematen zuenean egin zuen lehena Vila-realek; handik aurrera Realak ezinean ibili zen

Bueno, ez, emaitza txarragoarekin, lau gol jaso zutelako txururdinek etxean.

Lehen zatian, bazirudien taktika bide onetik zihoala, Vila-realek ez zuen aukera garbirik sortu, eta Riquelme ia agertu ere

ez zen egin. Realak presioa nahiko ongi egin zuen, baina hori bai, aukerak sortzeko orduan antzu agertu zen. Aurten Realari hori falta zaio, aukerak sortu eta horiek gol bihurtzea. Ez dut uste aurrelariaren errua denik; nire

ustez zelai erdian eraso bideratuko duen jokalaririk bat falta zaio talde donostiarrari. Xabi Alonso joaten utzi zen Arteta hemen gelditzen zelako, baina...

Bigarren zatian Karpinek bete zuen Alkizaren postua, eta Xabi Prieto pasa zen eskuinera. Orduan etorri ziren Realaren minuturik onenak. Baina orduan etorri zen Forlanen lehen gola. Handik aurrera, Realaren gainbehera etorri zen eta Vila-realek kontraerasoan sekulako sarraskia egin zuen Anoetan. Beste astebez, berdin.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZER IRUDITZEN ZAIZU REALAK AURRE-DENBORALDIA KOREAN EGITEA?



MALEN ETA KRISTINA | BERGARA

“Prestakuntza berdina egin dezakete hemen eta ez dute zertan Korearaino joan behar”

“Gure ustez ez litzateke joan beharko hain urrun aurre-denboraldia egitera. Diru asko gastatuko dute eta bidaia ere luzea da. Prestakuntza berdina egin dezakete hemen eta ez dute zertan Korearaino joan behar”.



ISAAC PEÑA | BERGARA

“Dirurik gabe daude eta Korearaino doaz. Kamisetak saltzera?”

“Gaizki, bazkideendako ez da batere egokia. Dirurik gabe daude, eta Korearaino doaz. Zertara, kamisetak saltzera? Nire ustez lotsagarria da Realak egingo duena”.



JUAN CRUZ BERDONCES | DONOSTIA

“Gipuzkoan ez al daude zelai onak aurre-denboraldia egiteko?”

“Nire ustez dirua tontokeriatan gastatzea da haraino joatea. Gipuzkoan ez al daude zelai onak aurre-denboraldia egiteko? Gera daitezela hemen”.



JULEN, GORKA ETA DIEGO | BERGARA

“Ondo iruditzen zaigu. Beti ere dirua irabazten baldin badu”

“Ondo iruditzen zaigu. Beti ere dirua irabazten badu, eta uste dugunez asmo horrekin doaz Koreara. Gainera, Korean kamiseta gehiago saltzeko ondo etorriko da, baina horretarako Lee Chun Soo ere bertara joan beharko da”.



JOSE LUIS, MIKEL ETA JOSE ANGEL | OÑATI

“Badirudi, Lee Chun Sooren fitxaketari etekina ateratzea nahi dutela”

“Aurre-denboraldi ona egitea oso garrantzitsua da denboraldia ondo gertatzeko eta ez dugu uste Korean helburu horiek beteko dituztenik. Badirudi, kosta ala kosta, Lee Chun Sooren fitxaketari etekina ateratzea nahi dutela”.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

| | |
|---------------------|-----|
| Valentzia-Athletic | 2-2 |
| Sevilla-Bartzelona | 0-4 |
| Espanyol-Betis | 2-2 |
| Osasuna-Deportivo | 1-1 |
| Numantzia-R. Madril | 1-2 |
| Mallorca-Getafe | 3-1 |
| Racing-Levante | 2-2 |
| Reala-Vila-real | 0-4 |
| Zaragoza-Malaga | 1-0 |
| At. Madril-Albacete | 3-1 |

HURRENGOAK

| |
|-----------------------|
| Deportivo-Athletic |
| Bartzelona-At. Madril |
| R. Madril-Espanyol |
| Vila-real-Racing |
| Levante-Sevilla |
| Reala-Valentzia |
| Albacete-Zaragoza |
| Malaga-Mallorca |
| Betis-Osasuna |
| Getafe-Numantzia |

SAILKAPENA

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|----------------|---------|----|----|----|----|----|----|
| 1. Bartzelona | 51 | 21 | 16 | 2 | 3 | 43 | 14 |
| 2. Real Madril | 44 | 21 | 14 | 5 | 2 | 37 | 16 |
| 3. Valentzia | 37 | 21 | 10 | 4 | 7 | 32 | 18 |
| 4. Espanyol | 35 | 21 | 10 | 6 | 5 | 26 | 20 |
| 5. Sevilla | 35 | 21 | 10 | 6 | 5 | 23 | 23 |
| 6. Vila-real | 34 | 21 | 9 | 5 | 7 | 35 | 16 |
| 7. Betis | 34 | 21 | 9 | 5 | 7 | 30 | 23 |
| 8. Athletic | 30 | 21 | 8 | 7 | 6 | 32 | 27 |
| 9. At. Madril | 29 | 21 | 8 | 8 | 5 | 22 | 20 |
| 10. Osasuna | 29 | 21 | 8 | 8 | 5 | 31 | 34 |
| 11. Deportivo | 28 | 21 | 6 | 5 | 10 | 30 | 30 |
| 12. Zaragoza | 28 | 21 | 8 | 9 | 4 | 27 | 32 |
| 13. Levante | 25 | 21 | 7 | 10 | 4 | 25 | 33 |
| 14. Getafe | 23 | 21 | 6 | 10 | 5 | 21 | 25 |
| 15. Reala | 22 | 21 | 6 | 11 | 4 | 23 | 30 |
| 16. Racing | 21 | 21 | 5 | 10 | 6 | 19 | 31 |
| 17. Malaga | 21 | 21 | 6 | 12 | 3 | 15 | 30 |
| 18. Albacete | 20 | 21 | 4 | 9 | 8 | 18 | 28 |
| 19. Mallorca | 17 | 21 | 4 | 12 | 5 | 21 | 36 |
| 20. Numantzia | 14 | 21 | 3 | 13 | 5 | 13 | 36 |



Kiniela

KINIELA

| | |
|-------------------------|---|
| 1. Reala-Vila-real | 2 |
| 2. Valentzia-Athletic | X |
| 3. Osasuna-Deportivo | X |
| 4. Espanyol-Betis | X |
| 5. Numantzia-M. Madril | 2 |
| 6. Mallorca-Getafe | 1 |
| 7. Zaragoza-Malaga | 1 |
| 8. At. Madril-Albacete | 1 |
| 9. Sevilla-Bartzelona | 2 |
| 10. Racing-Levante | X |
| 11. Recreativo-Sporting | X |
| 12. Elche-Tenerife | X |
| 13. Celta-Almeria | 1 |
| 14. Valladolid-Alaves | 1 |

Athletic

Puntuak oso garesti dauden zelaitik merituzko puntua Athleticetik

0-2 irabazten zihozten 30 minutu falta zirela, baina Valentziakoek partidua berdintzea lortu zuten



Ion Unamuno

Mestalla moduko zelai batean berdinketa bat lortzea merituzko lana da. Hala ere, garaipena esku artean ikusi zen minutu askotan eta batek baino gehiagok lortutako puntua kaskartzat joko du. Baina, partidua zorian ere egon ziren zuri gorriak eta ondorioz berdinketa positibotzat hartu behar da.

Zelai erdiaz ondo jabetu zen Athletic lehenengo zatian. Aukera garbienak Valverderen taldeak sortu zituen eta halako batean etorri zen lehen gola. Etxeberriaren jokaldi bikain baten ostean, Del Hornok ezkerretik erdiratu zuen eta bidean baloiak Caneiraren besoan jo zuen. Epailak penaltia adierazi zuen eta Iraolak ez zuen huts egin. 30. minutua zen eta ondo jarri ziren gauzak Athleticendako. Valentziaren aldetik Di Vaiok erakusten zuen arrisku bakarra. Baraja eta Aimar ondo zainduta zituzten Athleticetako jokalariek. Zerbait aldatu behar zuela ikusi zuen Ranierik eta Mista zelaira sartu zuen atsedendian.

BIGARREN ZATI INTENTSOA

Valentzia presiopean zegoen (Bartzelonak eta R. Madrilak euren partiduak irabaziak zituzten) eta Mistaren aldaketarekin jokalariek aurreratu zituen Ranierik. Athleticetako jokalariek atzea ondo zaindu zuten eta kontraerasora euren aukerak sortu zituzten. Horrela, Iraolak egin dako erdiraketa baten ondorioz, Ezkerrok huts eta bikoa sartu zuen 59. minutuan. Benetan gol polita izan zen, area barruan baloia oso ondo kontrolatu zuen eta.

Valentziarrak ez zeuden besoak hain azkar jaisteko asmoarekin eta azken 30 minutuak gol bila jokatu zuten itsuturik. Goitik zentozen baloiekin arrisku asko sortu zezaketenaren jabe ziren valentziarrak eta horrela korner baten ostean bat eta bikoa sar-

VALENTZIA
2-2
ATHLETIC

Valentzia | Cañizares, Ayala (Angulo 83. min.), Marchena, Caneira, Fabio Aurelio (Mista 45. min.), Moretti, Albelda, Baraja, Fiore, Aimar eta Di Vaio.

Athletic | Arantzubia, Javi Gonzalez, Gurpegi, Luis Prieto, Casas, Iraola (Solabarrieta 86. min.), Orbaiz, Tiko, Del Horno, Etxeberria (Guerrero 90. min.) eta Ezkerro (Llorente 81. min.).

Golak: 0-1 Iraola. 0-2 Ezkerro. 1-2 Mista. 2-2 Di Vaio.

Epaila: Perez Burrull. Momentu batzuetan handi gelditu zitzaion partidua.

Bikain

IRAOLA

Gol bat eta asistentzia bat. Maila handiko jokalaria da Usurbilekoa eta bere hegaletik min asko sortu zuen Valentziaren kontrako partiduan.

Kaskar

CANEIRA

Oso Kaskar. Fernando Llorente zapaltzera joan zen eta asmatuz gero, izugarritzko lesioa egin liezaioke jokalarik gazteari.

tu zuten. Partidua amaitzeko 20 minutu falta ziren eta dinamika berdinarekin jarraitu zuten bi taldeek. Hamar minutu berandua Di Vaiok partidua berdindu zuen burukada baten bidez. Aldaketak egiten hasi zen Valverde eta horrela, hein batean, partidua errotimoa puskatzea lortu zuen. Llorenteren irteerarekin, partidua gelditu zen minutu batzuetan. Ayala lesionatu zuen eta denak bere kontra jarri ziren. Valentziarren azken aukeran, hiru aldi jaurti zuten atera, baina baloiak ez zuen sarea hautsi.

Zelai erdiaz ondo jabetu ziren lehenengo zatian Athleticetakoak

Aldaketekin Valverdek partidua errotimoa gelditzea lortu zuen

PREFERENTE MAILA



Azkenaldi honetan Aloñako mutilek ez dute zorte handirik atearen aurrean.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Bergarak aukera asko izan zituen arren, ezin izan zuen golik egin.

Barkatzen duenak geroago ordaindu egiten du

ZESTOA
1-0
ALOÑA

Zestoa | Aranguren, Gerenabarrena, Ugarte, Iban Etxeberria, Jon Etxeberria, Diaz (Eizagirre 66. min.), Quindos, Aldalur, Altuna, Zubimendi eta Uria.

Ekipoa | Jonan, Losada, Barrena, Jaboga, Olalde, Igartua, Garai, Unai Biain (Unai Arregi 75. min.), Albizu (Unai 72. min.), Roberto (Garmendia 61. min.) eta Aitor Lopez.

Golak: 1-0 Altuna.

Epailea: Josu Berasategi. 58. minutuan Losada kaleratu zuen. Hala ere, nahiko ondo ibili zen partidu guztian.

Asteleheneko Goienkaria

Sinesgaitza da azkenaldi honetan Aloñari gertatzen ari zaiona. Defentsan oso ondo dabiltzala esan daiteke, inoiz baino aukera gutxiago sortzen dizkiote eta. Hala ere, beti egoten da jokaldiren bat, dela atzelarien huts bat edo dela epailearen huts bat, gol bat egiten diotena eta esku-hutsik gelditzen dela.

Horixe bera gertatu zen Zestoa zapatuan. Partidu guztian, golaz gain, jaurtiketa bakarra egin zuten etxekoez (88. minutuan). Ordu arte, Aloñak jo eta ke jardun zuen golaren bila. Zebat aldiz baloia zutoinera? Zebat merituzko geldiketa atezainak? Auskalo, baina asko. Lola

sorginak Aloñaren aurrelarien kontra bi kandela beltz jarri dituela dirudi. Gainera, azkeneko 30 minutuak jokalar bat gutxiagoz jokatu zituzten oñatiarrek, baina ez zen igarri jokoa. Izan ere, Oruetaren mutilek irabazteko behar zuten golaren bila jarraitu zuten. 90. minutua pasa eta berehala egin zioten gola Aloñari. Oraingoan atzelarien huts baten ondorioz etorri zen gola.

16 PARTIDU FALTA DIRA, ETA ZORTZI IRABAZI BEHAR

Sailkapenean ez daude leku ederean oñatiarrak. Zenbakiak begiratzeko unea iritsi da, eta horiek ez dute gezurrik esaten: gelditzen diren 16 partiduetatik zortzi irabazi behar dira mailari eusteko.

Aukera asko izan zituen arren, ezin irabazi Bergarak

BETI GAZTE
2-0
BERGARA

Beti Gazte | Susperregi, Larrui, Almandoz, Zudaire, Telletxea, Irazoki, Larralde (Malla, 45. min.), Maritxalar, Saralegi (Rodriguez, 55. min.), Bertiz (Fernandez, 86. min.) eta Juanena.

Bergara | Egaña, Igarza, Ormaetxea (Zankada, 72. min.), Agirre, Lete (Berraondo, 28. min.), Maiztegi, Zubikarai, Ibañez (Cabaniillas, 45. min.), Garin, Otero eta Arana (Agirre, 45. min.).

Golak: 1-0 Malla. 2-0 Malla.

Epailea: Jarrillas jauna. Ondo aritu zen.

A.G.

Partidu ona jokatu zuen atzo Bergarak Lesakan. Etxeko taldea, bergararrak bezala, sailkapeneko zuloan dago sartuta, eta joko

an zeuden hiru puntuak oso garrantzitsuak ziren. Partidu hasieratik bergararrak agindu zuten; etxekoen jokoa, baloi luzeak bidaltzea zen behin eta berriz.

Bergara sendo zegoen atzeladean, eta talde bezala ederki jokatzen ari zen. Lehen zatian aukerak izan arren ezin izan zuten golik sartu eta 0-0 amaitu zen.

Bigarren zatian, bergararrak aukerak izaten jarraitu zuten, baina ate aurrean ez zuten asmatzen; Beti Gazte aldiz, ez zebilen joko ona egiten, eta kontraerasoren baten zain zebilen gola egiteko.

AZKEN MINUTUETAN GOLAK

Etxeko taldeak, ezertxo ere egin gabe eta zorrea lagun zuela, bi aukera izan zituen, eta bietan gola sartu zuen; min handia egiten duten golak izan ziren, azken minutuetan izan baitziren.

Bergara burumakur eta punturik gabe bueltatu behar.

Izotzagatik ezin partiduak jokatu

Jokin Etxebarria

Asteazken zehar botatako elurrak eta gerora egindako tenperatura hotzek, ibarreko futbol zelaiak egoera oso kaxkarrean utzi dituzte. Hori dela eta, asteburu honetarako zeuden partidu asko Federazioak bertan behera uztea erabaki du; horien artean zeuden Mondrak Hondarribiren aurka jokatu behar zuena eta baita UDAk Real Unionen aurka jokatu beharra zeukana ere. Beraz, preferenteko gure bi taldeek atsedeen izango dute aste honetan. Ez zaie gaizki etorriko, ez Mondrari eta ezta UDARI ere; izan ere, bi taldeak euren partiduak galtzetik datoz, eta beste aste bat izango dute lan egiteko, aurreko aste-

an egindako akatsak konpontzen ahalegintzeko.

DATARIK EZ

Jakin dugunez, oraindik ez dago data zehatzik bertan behera gelditu diren partidu horiek jokatzeke. Izan ere, bi taldeek bat etorri behar dute datarekin, eta horretarako batzartu egin beharko dute. Aste honetan elkartzea espero da, eta bestela Federazioak, partiduak bertan behera utzi dituen moduan, data ere jarri beharko du.

Litekeena da, hala ere, Aste Santutan jokatzea partidu horiek. Izan ere, asteburu hori da jokalariek libre duten bakarra jokatu ahal izateko.



AITOR LIZARRALDE

Ibarra futbol zelaia izoztuta zegoen eta horregatik laga zituzten partiduak bertan behera.

• NESKAK F-8



AITOR LIZARRALDE

BERGARA 0 - EIBARTARRAK 4

Igoera faseko lehenengo partidua izan zen atzokoa, eta maila handiko talde bat izan zuten aurrean bergararrek. Hobeak izan ziren Eibarko neskek eta partiduaren zati handiena atzean sartuta igaro zuen Bergarak. Lehenengo zatian Izarok

itsasoko uharte bat zirudien Bergararen aurrealdean. Eibarko neskek presio handia egin zuten eta asko kostatu zitzaizen bergararrei aukerak sortzea. Bergararen aldeko aukera garbiena Nereak izan zuen area kanpotik jaurtitako baloi batekin.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

Emaitzarik justuena partidu lehiatsua jokatu ostean

| | | |
|---------|-----|---------------|
| BERGARA | 1-1 | KOSTKAS MIREN |
|---------|-----|---------------|

Jokin Etxebarria

Igoera fasean dabilzan bi talde horiek partidu lehiatsua jokatu zuten atzo Ipintzan. Gol gutxi ikusi ziren, aukerak ere ez askorik, baina partidu gogorra izan zen. Bergarako mutilak izan ziren baloiaren jabe, baina, edozelan ere, ezin izan zuten aukera garbirik sortu, egin zuten golean izan ezik.

Donostiarrak, berriz, nahiz eta baloiaren jabetzarik ez izan, zelaian ondo kokaturik egon ziren denbora osoan, eta defentsan lan bikaina egin zuten. Gainera, zortezko jokaldi batean gola egin zuten eta markagailuan aurreratu ziren. Handik aurrera, garbi zegoen egin beharreko lana: atzean sartu eta ondo defenditu.

Etxekoek berdinketa lortu zuten, baina, hala eta guztiz ere, donostiarrak ez ziren erasora irten, eta berdinketarekin konformatu ziren.

• INFANTILAK, LEHEN MAILA

Azken segundora arte egon zen emozioa derbian

| | | |
|---------|-----|-------------|
| BERGARA | 2-1 | ALOÑA MENDI |
|---------|-----|-------------|

Ion Unamuno

Antzerako maila duten taldeak dira Bergara eta Aloña Mendi. Eta parekotasun hori zelaian ikusi zen. Edozelan ere, Manzanok eta Elkoroiribek egindako golek garaipena eman zioten Bergarari.

Lehenengo zatian bi ateean egon ziren aukerak. Manzanoren golaz gain, Linazisorok izan zuen baloia buruz sartzeko aukera garbi bat. Aloñak ere izan zituen bi aukera garbi Ekaitzen eta Gaizkaren bitartez. Azken horrek berdindu zuen partidua bigarren zatia hasi eta segituan. Baina gutxi iraun zuen berdinketak markagailuan; izan ere, Agirregomezkortak hasitako jokaldi eder baten ondorioz, Elkoroiribek Bergararen bigarren gola egin zuen. Aloñak berdinketa lortu nahi zuen. Hala, azken minutuan falta bidez lehia berdindu egin nahi izan zuen Urrutiak, baina gora joan zen baloia.

• LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Gol festa egon zen Ipintzan Soraluzeren kontura

| | | |
|---------|------|----------|
| BERGARA | 16-0 | SORALUZE |
|---------|------|----------|

A.G.

Serio jarraitzen dute Dabid Lopez de Abetxukoren mutilek sailkapenaren lehen postuan. Zapatuan, azkenaren kontrako partiduan gol betekada izan zuten bergararrek. Golegileen artean Iñaki Elkoroiribe aipatu behar da; izan ere, bost gol egin zituen. Partiduak bestela ez zuen historia handirik izan.

Txukun dabilza aurten bergararrak. Bigarren postuan dagoen Oriori lau puntu ateratzen dizkio talde mahoneroak. Hurrengo astean joango dira kostaldera eta sailkapenaren nondik norakoa zelakoa izan daitekeen ikusteko partidu garrantzitsua izango da. Oraindik 15 partidu gelditzen dira liga amaitzeko, eta, jokoan puntu asko dauden arren, ibilbide onean daude Abetxukoren mutilak. Egiten diharduten lanak denboraldi amaieran saria ekarri beharko luke: ohorezko gazteak.



Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

BI PORROT ETA BESTE BI PARTIDU JOKATU GABE

Asteburu honetan ezin gauza handirik kontatu. Alde batetik, bi partidu baino ez direlako jokatu, eta bestetik, jokatu diren bietan punturik lortu ez dugulako.

Bergarak, garaipena merezi izan zuen, baina galdu egin zuen Beti Gazteren aurka. Aloñak ere, ez zuen zorte handirik izan, eta azken minutuan sartu zioten gola. UDAREN eta Mondraren partiduak bertan behera gelditu ziren izotzarengatik.

Emaitzak eta sailkapenak

| PREFERENTE MAILA | | | BESTELAKOAK | | |
|------------------|-------|----|-----------------------------------|------------|--------------------------------------|
| Sailkapena | Punt. | J. | Emaitzak | | |
| 1. EHU | 45 | 22 | Zestoa-Aloña Mendi | 1-0 | GAZTEEN OHOREZKO LIGA |
| 2. Tolosa | 43 | 22 | Zarautz-Tolosa | 0-0 | Eibartarrak-Aretxabaleta |
| 3. Ordizia | 38 | 22 | Touring-Anaitasuna | 1-0 | Mondra-Ordizia |
| 4. Touring | 37 | 22 | UDA-Real Union | b.b. | LEHEN MAILAKO GAZTEAK |
| 5. Zarautz | 36 | 22 | Pasaia-Trintxerpe | 0-0 | Bergara-Soraluze |
| 6. Pasaia | 35 | 22 | Mondra-Hondarribia | b.b. | UDA Arizmendi-Arrasate |
| 7. Trintxerpe | 31 | 22 | Beti Gazte-Bergara | 2-0 | BIGAREN MAILAKO GAZTEAK |
| 8. Real Union | 30 | 21 | Orioko-Oiartzun | 5-2 | Bergara-Kostkas |
| 9. Zestoa | 30 | 22 | Urola-Mutriku | b.b. | Antzuola |
| 10. Orioko | 29 | 22 | Ordizia-EHU | 0-2 | (atsedena) |
| 11. Mondra | 28 | 21 | Hurrengoak | | KADETEEN OHOREZKO MAILA |
| 12. Hondarribia | 27 | 21 | EHU-Zestoa | | Lengoako-Aloña Mendi |
| 13. Aretxabaleta | 26 | 21 | Aloña Mendi-Zarautz | | Arrasate-Baskonia |
| 14. Mutriku | 26 | 21 | Tolosa-Touring | | Bergara-Lasartearra |
| 15. Anaitasuna | 25 | 22 | Anaitasuna-UDA | | LEHEN MAILAKO KADETEAK |
| 16. Urola | 23 | 21 | Real Union-Pasaia | | UDA Arizmendi-Billabona |
| 17. Aloña Mendi | 22 | 22 | Trintxerpe-Mondra | | BIGAREN MAILAKO KADETEAK |
| 18. Bergara | 22 | 22 | Hondarribia-Beti Gazte | | Bergara-Antzuola |
| 19. Beti Gazte | 22 | 22 | Bergara-Orioko | | UDA Arizmendi-Urki |
| 20. Oiartzun | 12 | 22 | Oiartzun-Urola | | EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA) |
| | | | Mutriku-Ordizia | | Intxaurdi-Mondra |
| | | | | | Aloña Mendi-Anaitasuna |
| | | | | | Tolosa-Almen Aretxabaleta |
| | | | | | Añoaga-Bergara |
| | | | | | 4-3 |
| | | | | | GAZTEEN EUSKAL LIGA |
| Sailkapena | Punt. | J. | Emaitzak | | EMAKUMEEN F-8 LIGA |
| 1. Barakaldo | 42 | 19 | Alde Zaha.-Lagun | b.b. | Bergara-Eibartarrak |
| 2. San Inazio | 40 | 19 | Tolosa-Aloña M. | 0-2 | Almen Arizme.-Almen Aretxabal.b.b. |
| 3. Tolosa | 38 | 19 | Barakaldo-Olarizu | 3-1 | Antzuola-Urki |
| 4. Durango | 33 | 19 | Bermeo-Elgoibar | 2-2 | OHOREZKO INFANTILAK |
| 5. Eibar | 32 | 19 | Amorebieta-Eibar | 1-1 | Elgoibar-UDA Arizmendi |
| 6. Aloña Mendi | 32 | 19 | San Martzial-Zugatz. | 4-1 | INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA) |
| 7. Zugatzarte | 27 | 19 | Zalla-San Inazio | 0-0 | Bergara-Aloña Mendi |
| 8. Amorebieta | 27 | 19 | Durango-Sporting H | 5-0 | 2-1 |
| 9. Elgoibar | 26 | 19 | Hurrengoak | | INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA) |
| 10. San Martzial | 26 | 19 | Aloña Mendi-Lagun Onak | | Zumaiako-Arrasate |
| 11. Zalla | 23 | 19 | Olarizu-Tolosa | | 1-1 |
| 12. Olarizu | 21 | 19 | Elgoibar-Barakaldo | | INFANTIL TXIKI (KOPA) |
| 13. Lagun Onak | 18 | 18 | Eibar-Bermeo | | UDA Arizmendi-Beasain |
| 14. S.Herrera | 15 | 19 | Zugatzarte-Amorebieta | | INFANTIL F-8 |
| 15. Bermeo | 13 | 19 | San Inazio-San Martzial | | Aloña Mendi-Ordizia |
| 16. Alde Zaharra | 7 | 18 | Sporting H.-Zalla | | Urki-Arizmendi B |
| | | | Durango-Alde Zaharra | | La Salle-Donibane |
| | | | | | Bergara |
| | | | | | (atsedena) |
| | | | | | BIGAREN ERREGIONALA (KOPA) |
| Sailkapena | Punt. | J. | Emaitzak | | |
| 1. La Salle | 7 | 3 | Urki-Zestoa | 7-0 | |
| 2. Lasarte Oria | 6 | 3 | Lasarte Oria-Antzuola | 0-2 | |
| 3. Antzuola | 6 | 2 | La Salle-Donibane | 3-0 | |
| 4. Urki | 4 | 3 | Amaroz | (atsedena) | |
| 5. Amaro | 3 | 2 | Hurrengoak (otsailak 13an) | | |
| 6. Zestoa | 0 | 2 | Zestoa-La Salle | | |
| 7. Donibane | 0 | 3 | Antzuola-Urki | | |
| | | | Amaroz-Lasarte Oria | | |
| | | | Donibane | (atsedena) | |

Eskola kirola

BERGARA

Eguraldi txarraren ondorioz, jardunaldiko partidu guztiak bertan behera gelditu ziren

Haur asko etxean gelditu ziren, eta Elgetakoak ez ziren Bergarara jaitsi

Jasone Zabala

Eguraldia ez dute lagun izan aurreko asteburuan Bergarako gaztetxoek, eta Elgetakoak, berriz, ez ziren jaitsi.

Jardunaldiak bi kirol ekintza izan behar zituen: atletismoa Agorrosinen eta eskubaloia Seminarioko patioan.

Seminarioko partiduak bedertzietan hasi ziren, eta lehen partidua –Aranzadi 1 eta San Martin A– jokatzeko hasi ziren. Baina euria gogor hasi zen, eta bertan behera gelditu ziren partidu hori eta gainerako guztiak. Horren ordez, Seminarioko aterpera joan ziren taldeak eta hainbat jolas egin zituzten: balukoian, harra-

paketan, errelebuka... Halaxe igaroz zuten goiza Seminarioa hurbildu ziren gaztetxoek.

ATLETISMOA ERE EURIPEAN

Atletismoko saioa ere bertan behera gelditu zen; hala ere, lehen txandan izandako hamahiru bat neska-mutikok, euripean izan bazen ere, hainbat modalitatetan

parte hartu zuten: pisu jaurtike-tan, errelebuka eta luzera jaurtike-tan. Ederki busti ondoren, bertara hurbildu ziren koordinatzaileek erabaki zuten gelditzen ziren beste bi txandak bertan behera uztea.

Ea datorren zapatuan eguraldi hobea egiten duen eta Elgetakoek ere jaisteko aukera duten.



AITOR LIZARRALDE

Mariaren Lagundia 2. Leire, Amaia, Laura, Endika, Mikel, Julen, Asier, Jokin, Mikel eta Asier.



AITOR LIZARRALDE

Aranzadi 3. Mikel, Yerkan, Andoni, Joanes, Jokin, Ander eta Patxi.



AITOR LIZARRALDE

San Martin B. Gorka, Julen, Unai, Iker, Ander, Aroa, Ainhoa, Maialen, Igor eta Joseba.



AITOR LIZARRALDE

San Martin C. Txomin, Sergio, Josu, Iker, Lierni, Ainhoa eta Leire.



BORJA, JULEN ETA JON ANDER |
SAN MARTIN



AMAIA ETA IZAR |
MARIAREN LAGUNDIA 1



ANDER ETA JOANES |
ARANZADI 3



ANDONI ETA UNAI |
SAN MARTIN



CRISTIAN, MIKEL ETA ION |
MARIAREN LAGUNDIA 1

“Gaur gustura etorri gara, nahiz eta euria egin duen. Pozik aritu gara errelebukan. Lagun asko egiten ditugu, eta orokorrean, kirol guztiak gustatzen zaizkigu”.

“Eskubaloia gustatzen zaigun arren, gaur hemen barruan ibili behar izan dugu, baina pozik”.

“Eskubaloia atsegin dugu, baina pozik aritu gara Seminarioan hainbat joko egiten”.

“Amorrua eman digu eguraldi txarrak, eskubaloian jokatu nahi genuen, baina euri asko egin du”.

“Nahiz eta eguraldia ez den ona izan, beste ikastetxeekin batera aritu gara jolasean; harrapaketan aritu gara, eta asko gustatu zaigu. Eguraldi txarrarena pena izan da”.

IRUDITAN



Horrenbeste pisatzen ote al du pilota biribil txiki horrek?



Kirola eginda, min hartzea ere normala da askotan, eta aurrez berotzea beti izaten da komenigarria.



Lekukoa eskuan hartuta, ea nor heltzen den azkarren helmugara.



Atsedena ere beharrezkoa da jolasean aritu eta gero.



Lokarriak ondo lotu behar dira jolasean aritzeko.



FRAN, ANDER ETA JURGI |
SAN MARTIN

“Atletismoan eguraldi onarekin aritzea oso polita da, eta asko gustatzen zaigu. Korrika asko egin dugu, eta pisu jaurtiketean ere aritu gara, baina gaur busti-bustita joan beharko dugu etxera”.



JOKIN ETA PATXI |
ARANZADI 3

“Pentsatzen genuen euria egin arren eskubaloian aritzeko ginea, baina barruko jolasak ere asko gustatzen zaizkigu”.



NEREA ETA IDOIA |
MARIAREN LAGUNDIA 1

“Ezin izan dugu eskubaloian jokatu, baina datorren astean beste kirol bat egingo dugu, eta espero dugu euririk ez egitea”.



MIKEL, YERKAN ETA ANDONI |
ARANZADI 3

“Hotz egiten du eta euria da, eta aterpean jolasten ibiltzea asko gustatzen zaigu, batez ere sokekin eta balukoi jokora. Datorren astean, beste kirol bat egingo dugu; ea euririk egiten ez duen”.

• LEHEN MAILA NAZIONALA

Errepaso ederra Arrikruzti

Lehen bost minutuetan izan ezik, partidu osoan Alcobendas taldearen atzetik ibili ziren oñatiarrak; izan ere, talde indartsua da madrildarra

ARRIKRUTZ OÑATI
20-26
ALCOBENDAS

Arrikruz Oñati | Biain, Galarza, Joseba (1), Zelaia (2), Jose Manuel (3), Rafael (3), Giraldo, Gari (5), Perosterena, Fertxu (2), Zurutuza, Eneko (3) eta Korkostegi (1).

Alcobendas | Manolo, Cervera (2), Alexis (5), Martin, Matarranz, Muñoz, Gonzalez (7), Solves (2), David (1), Manuel, Raul, Barba (6) eta De La Rubia (3).

Golak bost minuturo: 4-3; 5-6; 6-7; 7-10; 9-13; 12-16; 13-18; 14-22; 16-23; 17-24; 19-26; 20-26.

Ion Unamuno

Gurako nuke garaipen ederra izan zela idatzi. Gurako nuke Arrikruzten jokoa ikusgarria izan zela idatzi. Gurako nuke aurreko asteko porrota guztiz ahaztua dagoela idatzi. Edoze-lan ere, ezin dut horrelako ezer idatzi. Etxean jokaturako partidurik txarrena izan zen. Aurkaria talde indartsua zen eta

Asobal ligan noizean behin jokatzen duten bizpahiru jokalaria zituzten zelaian.

Hasiera polita izan zuen partidua, eta lehenengo bost minutuetan 4-3 aurreratu zen Arrikruz. Poliki-poliki indarrak xahutuz joan ziren eta irabazteko asmoa ahulduz hasi zen. Madrildarrek euren jokoa egin zuten partidu osoan. Bai aurrean eta bai atzean oso talde serioa direla erakutsi zuten. Maila handiko jokalariai ditu, eta benetan jokaldi politak ikusteko aukera izan genuen bertan bildutakoek. Hala ere, jokaldi horiek Arrikruzten kontra egini-koak ziren, eta hobe litzateke jokaldi horiek ez ikustea. Hala ere, zapatuko partiduan bada Arrikruzten aipatu beharreko jokalaria bat: Jose Manuel, hain zuzen ere. Ez ditu minutu asko izaten, eta Alcobendas hiru gol egin zizkion eskuin hegala.

HURRENGOA, HONDARRIBIAN Partidu bat irabazteko ordua iritsi da. Liga amaieran estatusnak izatea ez du inork ere nahi izaten, eta hori ez gertatzeko, puntuak lortu behar dira. Hon-



AITOR LIZARRALDE

Gutxitan lortu zuten Alcobendasen atzelarien gainetik pasatzea.

darrbian izango dute Txusen mutilek etxean lortu dituzten azken bi porrotak ahazteko abagunea. Oraingo momentu txarri buelta eman behar zaio. Zubikoatik ere puntuak ateratzen hasi dira taldeak eta horrekin amaitu egin beharra dago. Zaleek puntu dezente lortzen laguntzen diote taldeari denboraldian zehar. Orain, inoiz baino

gehiago behar dute jokalariek zaleen berotasuna. Zubikoan jokatutako beharreko hurrengo partidua irabazi beharra dago, bai jokoaz eta bai animuz.

Baina lehenago Hondarribian jokatuko dute derbia hurrengo astean. Helburu bakarrarekin joan behar dute bertara entrenatzaile, jokalaria eta zaleek: partidua irabazteko helburuarekin.

• EUSKADIKO TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

BERGARA 25 - LUK INTERNACIONAL 28

Pasa den zapatuan, partidu ona jokatutako zuten bergararrek Bilboko taldearen aurka, baina ezin izan zuten irabazi. Kanpotarrak sailkapenean goian dabilen arren, etxeok irabazteko zorian izan ziren. Berdintasuna izan zen partidu guztian nagusi, nahiz eta Landerren mutilak markagailuan beti atzetik joan. Intentsitatea erakutsi zuten, bai erasoan eta baita defentsan ere, eta azken momentuan ere berdindu egin zuten, baina bilbotarren lana ona izan zen, eta garaipena Bizkaia aldera joan zen.

• SENIOR MAILAKO NESKAK



AITOR LIZARRALDE

VERCOL ALOÑA 19 - URDAIBAI 24

Ahazteko moduko partidua izan zen Urdaibairen kontra jokatutakoa. Bizkaitarrek garaipena esku artetik ihes egingo zitzaizaien beldurrik ez zuten izan momentu batean ere ez. Gainera, Maitane Ruizek, izandako erori baten ostean, partidua utzi behar izan zuen. Erikak eta Ainhoa Unamunok, sei eta bost golekin, euren taldea bere gain hartu nahi izan zuten, baina aurrean aurkari gogorra izan zuten. Aurrealdean ez zuten barkatu eta atzealdean atezain ona dutela erakutsi zuten; izan ere, merituzko hainbat geldiketa egin zituen.

• LEHEN TERRITORIALA

Berriz ere gorantz dator AGR Arrasate sailkapenean

HONDARRIBIA
23-32
AGR ARRASATE

Jokin Etxebarria

Eraz irabazi zuen atzo AGR Arrasatek Hondarribian. Partidu osoan markagailuan aurretik ibili ziren, eta hobeto defendatzen hasi ziren momentuan alde handitu zuten. Izan ere, erasoko jokoa ez zuten arazo handirik izan, egindako gol kopuruak erakusten duen moduan.

Gauzak horrela, garaipen horrek, gainera, hirugarren postuari eusteko balioko die AGR Arrasatekoei, bigarren postuan dagoenarekin berdinduta.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIAKO LIGA

Arrikruz Oñati-Alcobendas 20-26

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergara-Luk Internacional 25-28

LEHEN TERRITORIALA

Hondarribia-AGR Arrasate 23-32

BIGARREN TERRITORIALA

Arrasate-Donibane 19-21

Haritza-Aloña Mendi 21-33

Bergara Atsedena

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Urdaibai 19-24

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion-Zarautz 27-27

GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Basauri-Verkol Aloña 20-15

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Arrasate-Arrate 1-35

Bergara-Leizaran 13-12

KADETE MAILAKO MUTILAK

Aloña Mendi-Ururbil 23-36

Bergara Atsedena

KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Basauri-Verkol Aloña 12-21

INFANTIL MUTILAK

Elgoibar-Arrasate b.b.

Leizaran-Aloña Mendi 19-27

INFANTIL NESKAK

Aloña Mendi-Zarautz 29-12

• BIGARREN MAILA

Azken laurden erabakigarria

Azken bost minutuetara arte bikain eutsi zieten eskoriatzarrek zarauztarrei, baina azkenean, ezin izan zuten partidua irabazi

ESKORIATZA
62-72
ZARAUTZ

Eskoriatza | Usabiaga (2), Laborda (5), Gomez, Alarcia, Sebastian, Murillo (15), Etxebarria (3), Soriano, Exposito (10), Belastegi (14), Etxebarria (2) eta Romera (11).

Zarautz | Bastida (11), Etxarte (10), Sanchez, Lazkano, Zendoia (17), Lertxundi, Eizagirre (1), Garmendia (29) eta Ostolaza (4).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 18-19. Bigarren laurdena 31-35. Hirugarren laurdena 49-50. Laugarren laurdena 62-72.

Jokin Etxebarria

Partidu polita ikusteko aukera izan zen zapatuan Intxaurtxuetan. Zarauzko taldea zuten aurkari Eskoriatzako neskek. Talde gogorra kostakoa. Jokalari oso onekin eta baloia ongi mugitzen zekitenak. Baina, eskoriatzarrek ondo eutsi zieten zarauztarrei

azken bost minutuetara arte. Orduan, burua apur bat galdu zuten erasoan, eta kostakoek ederki aprobetxatu zuten hori, partidua irabazteko.

Partidu guztiak dira garrantzitsuak, eta gehiago etxean jokatzen baldin badira. Hala ere, zapatuan jokatutakoa ez zen horren garrantzitsua. Izan ere, zarauzkoek igoera fasea jokatuko dute, eta eskoriatzarrek berriz, litekeena da jaitsiera fasea jokatzea. Beraz, garrantzitsuena jaitsiera fasea jokatuko dutenen aurka irabaztea da, fase honetara pasatzean aurkari hauen kontra irabazitako partidua hartzen dira eta kontuan.

Hau horrela izanda, eskertzekoa da Eskoriatzako neskek partidua irabazteko egindako ahalegina. Eta eskertzekoa da halaber, bi taldeek emandako ikuskizuna, partidua ederra izan zen eta ikusleendako.

PARTIDU BERTINDUA

Laurdenetako emaitzak ikustea besterik ez dago, konturatzeko, partidua oso berdindua izan zela azken laurdenera arte. Lehen



AITOR LIZARRALDE

Zarauzko Garmendia jokalaria min handia egin zuen.

hiruretan bi taldeak bikain ibili ziren jokoan. Baloia alde batetik bestera oso ondo mugitzen zuten erasoan, eta defentsan, bi taldeek denbora gehienezonakako defentsa erabili bazuten ere, esfortzu ikaragarria egin zuten.

Eskoriatzakoek taldeko jokoa erabiltzen bazuten, Zarauzkoek hegalekoekin jokatzen zuten, eta markagailua berdindua joatea

lortzen zuten bi taldeek. Azken laurdenera arte. Izan ere, lau minutu faltan, Zarauzko Garmendia hegalekoak hiruko hiru jaurtiketa sartu zituen. Eskoriatzakoek erasoan zenbait huts egin zituzten azkarregi jokatu nahi izan zutelako, eta burua galduta, partidua ere galdu zuten. Azkenean, Zarauzkoek irabazi zuten partidua.

Bergararrek luzapenean porrota

BERGARA
73-77
LEGAZPIA

Bergara | Murillo (20), Gonzalez (3), Morais (8), Arteaga (2), Blazquez, Beistegi, Ugarte, Alonso (8), Iñarra (6), Larranaga (4) eta Eraña (22).

Legazpia | Ormazabal X. (17), Amilibia (9), Oganda, Azpiroz (16), Beistegi, Balerdi (2), Ormazabal J. (12), Albisu, Iraeta (8) eta Rodriguez (13).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 15-12. Bigarren laurdena 19-15. Hirugarren laurdena 23-18. Laugarren laurdena 16-18. Luzapenean jokatutako bost minutuetan: 10-14.

Jasone Zabala

Garaipena lortzeko esperantzarekin hasi zuten partidua David Urbinaren mutilek, baina hasieratik urduritasunak eta gauzak azkar egiteko gogoak, ez zien joko ona egiten utzi zapatuko partiduan.

Legazpiko taldea zuten aurkari, eta hasieratik, batez ere barruko jokoan, kanpokoak hasi ziren agintzen. Bergara asko huts egiten hasi zen, batez ere kanpoko jaurtiketekin, eta errebotea ere ez zuten ondo ixten.

HIRUKO JAURTIKETAK

Hirugarren laurdenean, etxeko taldea esnatu egin zen, eta Muri-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Intentsitate gutxi ikusi zitzairen etxeko jokalariei zapatuan.

llo hiruko jaurtiketak asmatzen hasi zen. Sei sartu zituen partidua guztian zehar. Gauzak orekaturik zeuden, baina etxeko jokalaria falta mordo batekin zeuden, eta defentsa gogorregia

ere ez zuten egiten. Lau laurdenean jokatuta, 63nako berdinketa zegoen markagailuan; luzapenean azpeitiarrek 2 eta 8ko partziala egin zuten eta garaipena beraientzat izan zen 73 eta 77ko emaitzaz.

• LEHEN MAILA

Arrasatekoek garaipenaren martxa hartu dutela dirudi

LEGARZIA
90-94
MUGARRI ALKESA

Asteleheneko Goiencaria

Berriz ere irabazi zuten Mugarri Alkesako mutilek asteburu honetan, eta dagoeneko hiru garaipen dira jarraian lortu dituztenak. Nahiz eta azkenaren aurka jokatu, ez zen erraza izan partidua, eta Lizarrako taldeak talde txarra ez duela erakutsi zieten bigarrenez arrasatearrei. Bigarrenez, zeren eta Arrasaten 17 puntuko aldearekin irabazi baitzuten. Azken minutuetan, gainera, larritu ederra hartu zuten Zurutzaren mutilek. Izan ere, zuten 11 puntuko aldea azken minutuan 4 puntutakoa bihurtu zitzairen. Hala ere, garaipenarekin bueltatu ziren Arrasatera, eta hori da garrantzitsuena. Azken partidua irabazi eta gero, geroz eta gertuago dute arrasatearrek mailari eutsi ahal izatea. Izan ere, igoera faserako sailkatzaren diren bi postuetatik urrun badaude ere, azpian daudenen aurka partidua dezente irabazi dituzte, eta jaitsiera faserara garaipen mordoxka batekin pasako dira.

Datorren astean Zallaren aurka Musakolan jokatuko dute arrasatearrek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Legarza-Mugarri Alkesa 90-94

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Aloña Mendi-Lasarte 73-57

Bergara-Tximista elek. 73-77

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-Goierri 61-39

Easo-Aloña Mendi 76-33

Araneta-Zarautz 74-39

KADETE MAILA

Lacor-Aloña Mendi 55-43

Atco. S. S.-Mugarri Alkesa 36-59

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Zarautz 62-72

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-San Patricio b.b.

Indulita-Eskoriatza 33-46

KADETE NESKAK

Lazkao-Bergara 22-118

Eskoriatza-Cafes Aitona 22-31

Pilota

• SENIOR MAILA

Hirugarren garaipena Bergarako bikotearendako

Euskal Ligaren barruan jokatu zen partiduan, Amurrioko bikotea hartu zuten mendean bergararrek

Jasone Zabala

Partidu gogorra jokatu zuten bergararrek joan den egubakoitzean Amurrioren aurka.

Etxekoendako, partidu hau irabaztea oso garrantzitsua zen sailkapeneko lehenengo postuari eusteko, eta modu horretan Euskal Ligako finalerdiei begira, aurrera pausu garrantzitsua emateko. Datorren astean, Ortuellako bikotea izango dute aurkari, eta lortutako hirugarren garaipen honekin, lasaigo jokatuko dute laugarren partidu hori.

PARTIDU GOGORRA

Hirugarren partidu hau, ez zen lan erraza izan Gutu eta Muguruzarentzat. Bergararrek tanto bikainak egin zituzten hasieran, bai sakez bai tantoak edeki amaituz. 4-0ko partziala izan zen hasierakoa. Amurrioko bikoteak tanto batzuk egin zituen, baina markagailuko alde nabarmena zen: 16-6. Kanpotarrek erreazionatu zuten, eta markagailuan hurbildu ziren



AITOR LIZARRALDE

Amurriokoak saiatu ziren arren, ezin izan zuten garaipena lortu.

(20-15), baina azkenean garaipena bergararrentzat izan zen (22-16).

Bestalde, aipatu, nagusien partiduaren aurretik, beste

batzuk izan zirela: kadeteetan, Bergarak galdu egin zuen Belokiren aurka 11-22, eta nagusien bigarren mailan Bergarak Ikasberriri irabazi zion 22-11.

• UDABERRIKO PILOTA TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

ERRASTI ANAIK 21 - GOIERRI 22

Joan den zapatuan, Udaberriko Txapelketari zegokion bigarren partidua jokatu zuten Errasti anaiek Goierriko bikotearen aurka, eta galdu egin zuten emaitza estuarekin. Partidua Kirol- Etxean jokatu zuten. Lan asko egin beharko dute sailkapena lortzeko.

• ARETO FUTBOLA



AITOR LIZARRALDE

ALOÑA MENDI 2-IRIZABAL ARRAINAK 3

Lehenengo zatia 2-2 bukatu ostean, bigarren zatiak emozio handia izan zuen. Hasierako minutuetan egin zuten getariarrek hirugarren gola, eta oñatiarrek berdinketaren bila abiatu ziren. Eta aukera dezentetan izan ziren arren, ez zuten partidua berdindu.

Saskibaloia

LAN BIKAINA IBARREKO HIRU JOKALARIK KADETE TXAPELKETAN

Urtarrilaren hasieran Santiagon (Galizian) jokatutako Espainiako Kadete Txapelketan, ibarreko hiru jokalarik izan genituen: Ander Garcia eta Antxon Hernandez bergararrak, eta Beñat Barberena arrasatearra, hain justu ere.

Lan bikaina izan zen hiru egunetan zehar jokalarik hauek egindakoa, baina aipatzekoa bereziki Antxonon lana, txapelketa amaitzeaz batera, jokalarik aipagarrien artean sartu baitute. Antxonon zenbakiak txapelketan hauek izan ziren: 10.7 puntu, 6.2 errebote, 1.2 asistentzia eta baloi berreskuratze bat.

Sasoi onean dago beraz ibarreko saskibaloia, eta etorkizun itxaropentsua du.



ARTXIBOA

Boloak

Neguko Bolo txapelketa amaitu da Elgetan

A.G.

Joan den hilaren 18an banatu ziren Elgetan Neguko Bolo Txapelketari zegokion sariak. Partehartzea handia izan zen, eta aipatzekoa emakume bakarrak parte hartu zuela txapelketa guztian zehar.

MARTXORAKO TIRALDIA

Aurreko zapatu honetan, tiraldi berria antolatua zuten herrikoek, baina eguraldi txarra zela eta jende gutxi hurbildu zen bertara. Horregatik, bertan behera utzi zuten. Martxorako tiraldi berria antolatuko da, eta jende gehiago animatzea espero dute.

Sailkapena

GIZONEZKOAK

| | |
|------------------------|-----------|
| 1. Felix Gomez | 21 Txirlo |
| 2. Felix Aizpiri | 11 Txirlo |
| 3. Jose Luis Gorosabel | 10 Txirlo |

EMAKUMEZKOAK

| | |
|-----------|----------|
| 1. Karmen | 3 Txirlo |
|-----------|----------|

Sariak, ondorengoak izango dira: lehenengoarentzat, batutakoaren %40, bigarrenarentzat, batutakoaren %25, hirugarrenarentzat, batutakoaren %15 eta laugarrenarentzat %10.

Jonathan Perez 22 urteko pertika jauzilari arrasatearra da. Dagoeneko hiru aldiz izan da Euskadiko Txapeldun, baina Espainiako Txapelketan parte hartzeko markarik ez du

lortu eta horregatik penatuta dago. Kirolaria izateaz gain, entrenatzailea ere bada, eta Arrasaten harrobi ona dagoela dio. Hala ere, badaki kirol honetatik

bizitzea oso zaila dela eta horregatik kirolek kanpo ere lanean badihardu. Bere idoloa ez omen da Sergei Budka, Javier Garcia-Chico baizik.

JONATHAN PEREZ | PERTIKA JAUZILARI ARRASATEARRA

"Penatuta nago nahi dudan marka ez dudalako lortu lehiaketetan"

Jokin Etxebarria

Euskadiko Txapeldun atera berri zara, pozik ezta?

Bai noski, poztasun handia ematen du horrelako txapelketa bat irabazteak. Dagoeneko hiru garren aldia da pista estalian irabazten dudana. Beti ibiltzen naiz nafar batekin lehiatzen, eta aurtengoan nik irabazi dut. Txarrena nik nahi nuen marka ez dudala lortu, beti ibiltzen naiz eta zerbait gehiago lortu nahian, baina bestela, pozik nago.

Zer diferentzia dago pista estalia eta kanpoko pista baten artean?

Kanpoan egiten duzunean eguraldiaren menpe zaude. Euria, hotza, haizea... zailagoa da. Nik behintzat nahiago dut pista estalian salto egitea. Marka onak bertan egin ditut. Hala ere, badago jendea, kanpoan gehiago saltatzen duena.

Beraz, penatuta zaude marka ez duzulako lortu?

Hori da. Entrenamenduetan hor ibiltzen naiz, 5'10, 5'20 saltatzen. Baina lehiaketara heltzen naizenean ez dakit zer gertatzen zaidan, ez naiz altuera horietara heltzen. Normalean, entrenamenduetan, bosgarren saltotik aurrera hasten naiz salto onak egiten, eta lehiaketetan hiru salto bakarrik egin ditzaket. Agian horregatik izango da. Hala ere, oraindik hilabete daukat 4'95 metro salto egiteko lehiaketa batean, Espainiako txapelketan sartu ahal izateko; eta bestela, espero dut rankineko postuegatik sartzeko.

Realaren atletismo taldean zabilta. Zenbat urte daramazu bertan?

Aurtengoa bertan nagoen bosgarren urtea da dagoeneko. Bertan oso pozik nago, oso ondo tratatzen naute. Beste talde batzuetara joateko aukera izan dut, Avia edo Bartzelona bezalako taldeetara, baina, bertan gelditzea erabaki nuen. Izan ere, Realak bidaia denak ordaintzen dizkit, nahi ditudan pertikak

ematen dizkit, ondo ordaintzen didate, eta tratu aldetik oso ongi portatzen dira nirekin.

Non entrenatzen duzu?

Normalean astean zehar Arrasaten entrenatzen dut, eta astean behin Donostian, Belodromoan.

Baina Belodromoan ez dago kondizio egokienetan, ez?

Egia da. Estatu mailan pista onenetakoa izanda, ez dut ulertzen zergatik zaintzen duten horren gutxi. Sekulako gimnasioa ere badauka, baina orain itoginez beteta dago, berogailurik gabe dago...pena bat da.

Arrasaten ere ez dituzu instalazio egokiak.


Arrasatekoa penagarria da. Iturripen entrenatzen dugu, baina eskubaloikoak edo saskibaloikoak etortzen direnean, eurek dute lehentasuna, eta guk harmailetan entrenatu beharra izaten dugu. Udaletxeari eskatuko nioke, Musakolako kiroldegiko frontoietan, gutxienez pertika sartzeko zulo bat egiteko, bertan entrenatu ahal izateko.

Nolako entrenamenduak izaten dira normalean?

Normalean indarra lantzen dugu bi aldiz astean, abiadura astean behin, saltoak ere astean behin, gimnasia artistikoa astean behin, eta teknika beste egun

"Beste talde batera joateko aukera izan dut, baina, Realean oso gustura nago"

"Ez dut ulertzen Belodromoan zergatik zaintzen duten horren gutxi. Penagarria da"



Jonathan Perezek Iturripen entrenatu behar izaten du pertika jauzia.

JOKIN ETXEBARRIA

batean. Guztira sei egunetan entrenatzen dugu. Hala ere, pertika jauzilari batek teknika gutxienez astean bi aldiz entrenatu beharko luke. Arrasaten instalazio egokirik ez dagoenez, Donostiara joaten naizenean bakarrik izaten dut arlo hau

"Teknika oso garrantzitsua da; nire ustez, indarra baino garrantzitsuagoa"

"Harribitxiak badaude, eta nik uste nire marka goiz kenduko didatela"

entrenatzeko aukera. Pena da, baina horrela moldatu behar izaten naiz.

Beraz, teknika garrantzitsua da?
Bai, nik uste indarra baino garrantzitsuagoa dela.

Kirolaria izateaz gain entrenatzaile ere bazara, nola bateratzen dituzu bi arloak?

Nahiko ondo eramaten dut. Batzuetan gaizki datorrit, nik ere lehiaketak prestatu behar ditudalako, baina gustura nabil entrenatzaile lanetan, eta harrobi polita sortzeko esperantzarekin nabil.
Beraz, Arrasaten, harribitxiren bat badago?

Bai, badago. Nik uste, gainera, nire marka goiz kenduko didatela atzetik datozenek.

Zein da zure idoloa?

Denek Bubka dela esaten dute, baina niretzat Javier Garcia-Chico da. Gainera bere azken lehiaketan nik irabazi nion, eta hori bai poza.

Espainiako txapelketa urrunago

Anoetan zapatuan izan zuen azken aukera Jonathan Perezek Espainiako Txapelketa-rako sailkapena lortzeko. Baina ez zuen lortu berak nahi zuena. Izan ere, lehenengo altueran balio gabeko hiru salto egin zituen, eta kanporatua izan zen. Orain ranking-ari itxaron banko dio. Lehenengo hamabiak sartzen dira eta oraingoz bera hamargarren dago. Hala ere, beste txapelketaren batean parte hartzeko esperantzaz dago Jonathan.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Emakumez osatutako Desprezio punk taldeak emanaldia egin zuen zapatuan Bergaran | 24
- Jürgen Wolf alemaniarren emanaldiarekin gozatu zuten zapatuan Bergaran. | 24

Pernan Goñi eta haren taldeak mugikorrendako lehen euskarazko jokoa egin du | 26

AL ANDALUS ETXEAREN 15. URTEMUGA



Ermuko dantza taldeak ikuskizun bikaina eskaini zuen, gitarra taldeak lagunduta Al Andalus elkartean batu ziren guztien gozamenerako.

AL ANDALUS ETXEA | ERMUKO ANDALUZIARREN ETXeko KIDEAK GONBIDATU ZITUZTEN ZAPATUAN URTEMUGA OSPATZERA

Andaluziako taula flamenkoei inbidiarik ez diete Al Andaluskoek

Umorea. Horixe behintzat badutela aitortu behar zaie. Eta zer-nolakoa, gainera! Finoa batean, salda bestean eta mahaian, berriz, oliba arrailduak, Trevelezko pernila... Eta guztia, gozo!

Marijo Deogracias

Hamabost urte egin ditu Arrasateko Al Andalus etxeak, eta zapatuan ospatu zuten. Ermuko andaluziar etxeak gonbidatu zituzten egun osoko jaialdira. Lehenengo, jakina, eta ohiturari jarraituz, ohorezko brindisa egin zuten; gero, bazkaltzeko, besteak beste babarrun gorriak almejekin izan zituzten. Arratsaldean, andaluziar etxe bietako taldeek dantza saioak eskaini zituzten.

JAIALDI BIKAINA

Arrasateko Sueño de Andalucía eta Alegria de la Sierra dantza taldeek ekin zioten saioari. Adin askotariko lau taldek jardun zuten, eta horren ostean, Ermu-

ko taldeek hartu zuten txanda: Rocio de Baile eta Grupo de Guitarras Sirocok. Ikuskizun ederra eskaini zuten talde guztiek. Flamenko taula ikusi gura izaten dute turistek Andaluziara joaten direnean, baina hara joan beharrik ez dago horretarako. Izan ere, Al Andalus etxean egin zuten taula flamenkoa ere ikusgarria izan zen; hori da artea eta dantzarako gogoia! Gitarra jotzaileak bikainak eta dantzariak ere sentimenduz.

Al Andalus etxeko ordezkariak harro zebiltzan erakutsi zutenarekin; gainera, aurrera begira duten asmoarekin bat zeterren: Andaluziaren ordezkaritza edo enbaxada izatea eta hango kultura eta ohituren erreferente bihurtzea.

URTEMUGA BEREZIA

Al Andalus urtemuga berezia egin nahi izan du. Zapatukoa ez da aurten egingo duten ekitaldi handi bakarra. Izan ere, lehen-

Ehun lagun baino gehiago batu ziren Al Andalusen bazkaltzeko

Ermutik etorritakoek ere saio ederrak eskaini zituzten

dakaritza aldatu egin dute, batzordea berritu eta, gainera, Euskal Herriko andaluziar etxe guztien eta Espainiako andaluziar etxe guztien anfitrioi izango da, Arrasateko egoitzan egingo diren bi batzarretan. Andaluziar etxeei beste ikuspegi bat eman nahi diote eta andaluziarren atzerriko enbaxada bihurtu.


HURRENGO SAIOAK

Otsailaren 12an karaoke saioa egingo dute Al Andalusen. Urteroko Kultura Astea eta Errozioko Eguna ere egingo dituzte.

Bestalde, otsailaren 19an, Arrasateko Amaia antzokian jokatu da Cante Flamenkoaren finala. Zapatuan aukeratu zituzten finalistak.

RAFA GOMEZ | AL ANDALUS ELKARTEKO LEHENDAKARIA

“Andaluziaren enbaxada izan nahi dugu”



AITOR LIZARRALDE

Marijo Deogracias

Hiru urteko atsedeneren ondoren, berriz ere hartu du lehendakari kargua Rafael Gomezek. Hura da Arrasateko Al Andalus elkartearen batzorde berriko lehendakaria. Hamasei lagunek osatzen dute batzordea, eta zortzi kide berriak dira.

Berriz ere karguan. Nolatan animatu zara?

Elkarteko bazkide guztiak hautagaiak izaten gara; karguan egon ostean, aukera izaten dugu 3 urtez derrigorrezko hautagai-zerrendatik ateratzeko. Bete da epe hori, eta bozketa bidez aukeratu naute.

Eta, gogoz hartu duzu?

Egia esateko, hasieran gogoz hartzen ziren horrelako ardurak. Gaur egun, berriz, Al Andalus elkartearen instituzio bilakatu da eta horrek bestelako ardurak ematen ditu; niretako sakrifizioa izango da, erronka, Al Andalus elkartearen duenari eusteko eta elkartearen aurrera begira jartzeko.

Zer proposatzen duzu?

Hamabost urtean lortu dugu andaluziarrekiko jarrera beste bat izatea herrian; aurrerantzean lortu nahi duguna da Andaluziara joan nahi dutenen erreferentzia bihurtu, Andaluziako herriaren erreferente bihurtu eta andaluziarron ondarearen ordezkari izan. Horren haritik, otsailaren 19an, Arrasateko hartuko du Espainiako iparraldean

kokatzen diren andaluziar etxeen ordezkarien batzarra, Andaluziako gobernuak eskatuta, Andaluziatik kanpoko etxeen estatutuak aldatzeko. Beste ikuspegi hori eman nahian, gure etxeak Andaluziaren enbaxada izatea lortu nahi da. Egun horretan, Kantabria, Asturias, Nafarroa, Errioxa, Aragoi eta EAeko andaluziar etxeetako ordezkariak batzartuko gara. **Entzun dudanez, Andaluziako Eguna birritan ospatuko duzue aurten.**

Otsailaren 28a da Andaluziako Eguna, eta arrasatearrok egun horretan ospatuko dugu; martxoaren 19an, aldiz, FARAElkarteko andaluziar etxe guztiak ospatuko dugu, hemen, Al Andalusen. Andaluziako Juntako ordezkariak eta Jaurlearitzakoak gonbidatu ditugu, eta Barakaldo, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Ermua, Durango, Laudio, Gasteiz eta Lasarteako etxeak etorriko dira. Gure folklorea eta euskal folklorea erakusteko ekitaldiak egingo dira, eta Antonio Gala edo Jesus Quintero etortzea ere nahiko genuke, hitzaldia egitera. Andaluziako euskal etxeek Andaluziako Eguna batera ospatuko dugun lehenengo aldiz izango da, eta egun handia izatea nahi dugu. **Zortzi batzordekide berri izango dituzu datozen bi urteotan.**

Bi urtean behin batzorde erdia berritzen da. Barrutik berritu beharra dago aurrera begira proiektua ez geratzeko. Gazteak ere ari dira animatzen, eta hori da etorkizuna.

“Al Andalus elkartearen instituzio bilakatu da herrian, eta horrek bestelako ardurak ematen ditu”

“Andaluziako euskal etxeek Andaluziako Eguna batera ospatuko dugu lehenengoz”

Andrazko bi eta gizonezko hiru izango dira finalean

M.D.

Zapatuan jokatu zen, Al Andalus elkartearen, Cante Flamenkoaren txapelketako azken kanporaketa. Hiru kantaore izan ziren; izan ere, eguraldiaren eraginez asko ezin izan ziren etorri. Maila handiko parte-hartzaileak aritu ziren, eta hirugarrenez, Al Andalus etxe-ko areto nagusia jendez bete zen.

AUKERAKETA ONA

Ados agertu da epaimahaikideen presidentea azkenengo erabakiarekin. Hark azaldu digunez, “epaimahaikide bakoitzak puntuazioa ematen dio kantaore bakoitzari eta ez dizkio lehendakariari ematen saioko parte-hartzaile guztiak abestu arte. Niri eman ostean puntuak ezin dira aldatu, baina aurretik badago horretarako aukera. Horrek

gehiago asmatzera eramaten gaitu. Puntuazioa oso gauza pertsonala da, azken batean, nork bere ikuspegia duelako, baina Amaia antzokian egongo diren bost parte-hartzaileek oso maila ona dutela erakutsi dute”.

Malagan bizi baina Kordobakoa den Isabel Rico, Gasteizen bizi baina Jaengoa den Paco Guerrero, Getafen bizi baina Kadizkoa den Rocio Ruiz eta Jaengokoa den San Adrianen (Nafarroa) bizi diren Antonio eta Jose Parra anaiak sailkatu dira III. Cante Flamenko txapelketa-

ren finalerako. Otsailaren 19an, zapatua, izango da, Amaia antzokian. Hitzordua: 19:00. Gitarra jotzailea Alejandro Martin izango da, Santandertik etorria eta aurreko kanporaketetan ere aritu dena. Hala ere, eta lehiaketaren oinarrietan horrela jasota dago, kantaore bakoitzak bere gitarra jotzailea ekar dezake.

AMAIAKO FINALA

Raimundo Navarra epaimahaikideak adierazi digunez, otsailaren 19an ere, kanporaketetan egon denaren antzera, malagueña eta serrana delako abesti motak entzungo dira: “Era horretakoak izan dira nagusi. Hala ere, kantu libreetan oso gauza ederrak entzun ditugu; gitarra barik abesten den kanta da, eta indar handiarekin aritzen dira abeslariak”.

Finala otsailaren 19an izango da, Amaian, 19:00etan



Gasteizko Pedro Chaparro kantuan eta Alejandro Martin gitarra jotzailea.

AITOR LIZARRALDE

Cante finala

- **NOIZ:** Otsailaren 19an, 19:00etan.
- **NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
- **SAILKATUAK:** Isabel Rico (Kordoba) Paco Guerrero (Gasteiz) Rocio Ruiz (Getafe) Antonio Parra (San Adrian) Jose Parra (San Adrian)
- **SARIAK:** Euskal Herriko kantaorerek onenaren saria, Andaluziako etxeen Federazioaren eskutik (FARAEl) eta joan-etorriko kanten abeslaririk onenaren saria, Gipuzkoako andaluziar etxeen elkartearen eskutik jasoko dituzte.

1. saria: 1.200 euro
2. saria: 750 euro
3. saria: 400 euro
- 2 akzesit: 300 eurona

• NOLAKO FINALA IZANGO DA?



RAIMUNDO NAVARRA | GASTEIZ

“Datozenek maila ona dute. Hala ere, tenore ahots gehiegi dago”

“Kantaoreek oso maila ona dute, baina zaleek tenoreak dirudite; ahots indartsuak dituzte, baina duendea falta dute”, adierazi zigun epaimahaiko lehendakariak.



ADOLFO DIEZ | ARRASATE

“Nahiko maila ona egon da, baina eguraldiak kalte egin digu”

Arrasateko epaimahaikide bakarra izan da Adolfo. Onartu digunez, eguraldiaren eraginez, kantaoretariko batzuk ezin izan dira etorri “eta aukerak zituztenetako batzuk ziren”.

MUSIKA |
PUNK KONTZERTUA

Emakumezkoek egindako punk musika bergarako gaztetxean


Taldeak. Hemorragia, Kalaña eta Desprecio.
Iraupena. Bi ordu eta erditik gora.
Zenbat jende. 70 bat lagun.

M.B.

Zapatu gauean ez ohiko kontzertua ikusteko aukera izan genuen Bergarako gaztetxean. Hiru taldek egin zuten kontzertua: Soraluzeko Hemorragia taldeak, Debako Kalaña eta Aretxabaleta-Eskoriatzako Despreciok, hirurak punk musika egileak. 23:00ak jota ziren Hemorragiak emanaldia hasi orduko eta haren ondotik Kalaña jo zuen; bakoitzak 50 minutu inguru. Desprecio izan zen gaueko ezustea, izan ere, ez gaude ohituta soilik emakumez osatutako taldeak ikustera. Zapatuan, baina, ezin izan genituen lau neskok ikusi: baxu jotzaileak besoa apurtuta dauka, eta haren ordez Kalaña baxu jotzailea aritu zen haiekin. Hainbat bertsio egin zituzten, nola ez, Vulpess-enak tartean.



Desprecio taldeko kide bat.



AITOR LIZARRALDE

Jürgen Wolf organo-jotzaile alemaniarra Bergarako San Pedro parrokiako Stoltz-Frères organoa astintzen.

ORGANO KONTZERTUA | **ORGANO ERROMANTIKOAREN NAZIOARTEKO VI. ZIKLOA**

Garai eta estilo guztietako organo konposizioak jo zituen Bergaran Jürgen Wolf musikari alemaniarra

Non: San Pedro parrokian.
Zenbat jende: 100 bat lagun.
Iraupena: ordu bete pasatxo.

Larraitz Zeberio

Garai eta estilo guztietako piezak jo zituen zapatu iluntzean Jürgen Wolf organojotzaile alemaniarra. Oinetakoetako lokarriak ondo lotzen ikusi genuen kontzertua hasi baino minutu batzuk

lehenago. Sei obra jo zituen, has-teko Johann Sebastian Bachen do txikiko *Biribilketa*. Hogei minutuko pieza barrokoa, dramatikoa oso eta interpretazio zailekoa.

Jarraian, musikariak Italiara eraman gintuen Bernardo Storace konpositorearen *Balletari* txanda emanez. Aurrekoarekin inongo zerikusirik gabekoa, Italiako Gortetik jasotako pieza laburra eta alaia entzun genuen.

MUSIKA GARAIKIDEA

Historian beste salto handi bat emanez Naji Hakim konposito-

rearen pieza garaikide bat jo zuen ondotik Jürgen Wolfek; hiru mugimenduko *Sinfonia Amaiera*. Oso obra interesgarria eta gutxi entzundako estilokoa non organo-jotzailearen eskuak etengabe teklatu batetik bestera salto egi-

ten ikusi genituen. Johann Kaspar Kerll konpositorearen *Kuku gaien Capriccio* obrak kukuaren kantua ekarri zigun gogora.

Kontzertuko harribitxia, ordea, amaieran heldu zen, Bachen re txikiko *Toccata eta Fuga* hain zuzen ere. Organo obren artean maisulana da eta teknikoki oso zaila gainera. Bikain interpretatu zuen Jürgen Wolf alemaniarra.

Amaitzeko, inprobisazio lana egin zuen organo jotzaileak. Jakin dugunez, Bergarako organoarekin txundituta gelditu da.

Organo jotzailea txundituta gelditu da Bergarako organoarekin

Drogen gaia umorez ere lan daitekeela erakutsi du Pikor Teatroa taldeak

Asteleheneko Goienkaria

30 urte inguruko gazteak gerturatu ziren Santa Ana aretorea domeka arratsaldean, Pikor Teatroren *Zapaldu marra* antzezlanaren ikustera. Ordu bete iraun zuen saioak, eta publikoa gustura gertatu zen antzerki taldeak aurkeztutako drogen gaineko ikuspegiarekin. Pikor Teatrok antzezlaren euskarazko bertsioa antzeztu zuen Santa Anan. Ez da ohikoa izaten domeketan saioa

egotea Santa Anan, baina gehiago ere egingo ei dira.

ALKOHOLA ERE DROGA DA

Legez kanpoko substantziak eta legezkatutako drogak dituzte hizpide Pikor Teatroa taldekoek; horrela, bada, kokaina, heroina eta bestelakoez jarduten dute, bai eta gure gizartean hain barneratua dagoen alkoholaz. Topikoez, gazteak-drogak bikoteaz eta beste hainbat arloz aritzen dira lau aktoreak taula gainean.



AITOR LIZARRALDE

Zapaldu marra hitz jokoarekin aurkeztu zuen Pikor Teatroa taldeak drogen gaineko antzezlana Santa Ana aretoan.

ARAMAIO | ARABAKO TALDEKAKO BERTSO TXAPELKETAREN FINALA

Gorbeialdeko bertso taldea nagusitu da Arabako taldekako txapelketan

Aramaioko Iturrieta sagardotegian jokatu zen atzo, domeka, Arabako bertso finala eta etxeko bertsolariek osatzen zuten taldea nagusitu zitzaion Gasteizko boskote beteranoari

Larraitz Zeberio

Berrogeita hamar bat lagun elkartu zen atzo, domeka, Aramaioko Iturrieta sagardotegian Arabako taldekako bertso txapelketaren finala ikustera.

Bapo bazkaldu ondoren ekin zioten lanari finalerako sailkatu ziren bi taldeek. Alde batetik, Gasteiztik etorritako boskote beteranoa eta, bestetik, Josu Ormaetxea eta Hodei Lopez de Arkautekin batera Gorbeialdeko taldea osatzen zuten Andere Arriolabengoa, Lierni Altuna eta Iker Agirre aramaioarrak.

Bigarren urtez jarraian, Gorbeialdeko taldea nagusitu da txapelketan. "Partaideak aldatu dira baina lurraldekako txapelketa denez talde berdinak irabazi du finala", adierazten zuen Lierni Altube aramaioarrak.

FINAL PAREKATUA

Zazpi boskote aritu dira aurten Arabako taldekako bertsolaritza txapelketan. Finalera iritsi diren bi taldeen artean nabarmentzekoa bertsolarien arteko adin ezberdintasuna.

Gazteak nagusitu ziren azkenean finalean egotearen presioak min handiegia egin zuen saio batean. Isiluneak eta pota egite-

Isiluneak eta pota egiteak sarriegi entzun genituen atzoko bertso finalean

Aramaioko hiru bertsolari gazteak ondo aritu ziren eta merezimenduz irabazi zuten



Aramaioko Iturrieta sagardotegian 50 bat lagun elkartu zen atzo, domeka, Arabako taldekako bertso finala entzutera.

AITOR LIZARRALDE

Finala jokatu zuten bi taldeak

1. GORBEIALDEKO TALDEA

- Josu Ormaetxea
- Andere Arriolabengoa (Aramaioko)
- Lierni Altuna (Aramaioko)
- Hodei Lopez de Arkaute
- Iker Agirre (Aramaioko)

2. GASTEIZKO TALDEA

- Juan Mari Juaristi
- Alberto Martinez
- Rikardo Glz. de Durana
- Xabier Rico
- Felipe Zelaieta

ak sarriegi entzun genituen atzoko finalean.

Bi orduko saioa izan zen non bertsolariek Iñaki Viñaspre arabarrak jarritako ariketei aurre egin behar izan zieten. Zortziko handian eta hamarreko txikian aritu ziren hasieran. Jarraian, bakarkako ariketak burutu behar izan zituzten. Hauen artean lau oinak emanda bertsoa osatzea, hitza emanda bertsoa osatzea, bi puntu erantzutea eta kartzelako lana egitea egokitu zitzairen.

Talde irabazleak zilarrezko plaka eta bertaratutako publikoaren txalo zaparrada jaso zuen. Iker, Andere eta Josurendako bigarren finala zen. Ez ordea Lierni eta Hodeirendako. Manex Agirre faltan bota genuen baina Granadan ikasten ari denez ezin izan zuen finalean parte hartu.



Iñaki Viñaspre, Lierni Altuna, Josu Ormaetxea, Iker Agirre, Hodei L. de Arkaute eta Andere Arriolabengoa.

AITOR LIZARRALDE

ANDERE ARRIOLABENGOA | ARAMAIOKO BERTSOLARIA

"Gazteak nagusien mailara iristen ari gara"

Larraitz Zeberio

Oso parekatua ikusi du aurtengo finala Andere bertsolari aramaioarrak. Bigarren urtez, ordea, garaipena etxera.

Nola ikusi duzu zure burua?

Gustura aritu naiz seiko motzean izan ezik. Oso gutxitan

aritzen gara neurri horretan eta beti da zailagoa.

Gazteak nagusitu dira finalean.

Bai. Belaunaldi aldaketa da. Esaten dutenez, gazteek beste freskotasun bat dugu. Kontua da, ordea, gazteak ere nagusitzen ari garela eta iristen da momentu bat non nagusien mailara iristen ari garen. Hori ez da seinale txarra.



Andere Arriolabengoa.

Mamutxen eremua poltsikoko telefonoendako euskarazko lehen joko da. Bilboko Animatu enpresak egin du, eta bertan lan egiten du Pernan Goñi 36 urteko

marrazkilari oñatiarrak. 15 urterekin hasi zen marrazten eta ekoizpen zein gidolari lanetan aritu da kaleratu berritako proiektu horretan. Euskal mitologiako lau pertsonaia

poltsikoko telefonora eraman ditu: Tartalo, Basajaun, Lamia eta Sugar. Jokoa deskargatzeko mezua bidali behar da 7505 zenbakira EREMU hitzarekin.

PERNAN GOÑI | MARRAZKILARIA ETA ANIMATZAILEA

"Aspalditik genbiltzan euskarazko proiektu bat garatzeko asmoarekin"

Larraitz Zeberio

Zertan datza Mamutxen eremua jokoa?

Zelda joko bat da, non jokalaria ezkutatuta dauden lau mamutxa aurkitu behar dituen. Mamutxa horiek euskal mitologiako pertsonaiak dira: hain zuzen, Tartalo, Lamia, Basajaun eta Sugar. Ibilbidean, jokalaria hainbat pertsonaiaekin egingo du topo. Eta haiek pistak emango dizkiote mamutxak aurkitzeko. Arrastoa jarraituz gero lau mamutxak aurkituko ditu jokalaria.

Poltsikoko telefonoendako egiten duzuen lehen joko da?

Ez, bigarrena da. Aurretik gazteleraz egin genuen beste bat Kukuxumuxurendako. Oraingo honetan euskarazkoa eta bortizkeriarik gabekoa egitea pentsatu dugu. Poltsikoko telefonoekin gertatzen dena da telefono modelo bakoitzak bere ezaugarriak dituela, eta guk egokitu behar dugu jokoa modelo bakoitzerako. Ari gara pixkanaka, baina oraindik ez gara denetara heldu.

Zenbat denbora eman duzue joko hori lantzen?

Abuztuan hasi ginen. Lehenengo, ideia pentsatzen dugu, eta ideia jostagarria behar dugu. Batzuetan konturatzen gara ez dela bideragarria, bost minutu jokoan emanda grazia galtzen duelako. Gero, gidoia egin behar da. Hortik aurrera grafistak alde batetik eta informatikariak bestetik proiektua egiten dugu. Azkenik, probak egiten dira hainbat poltsikoko telefonotan, konpondu beharreko arazorik dagoen ikus-teko. Orain, jokoa hainbat telefono motatara egokitzen ari gara. Zein izan da zure ekarpena proiektu horretan?

Proiektu horretan, gehienbat ekoizpen eta gidoi lana egin dut nik. Mamutxak guk sortutako pertsonaiak dira, baina Gara egunkariaren argitaletxearen Mamutxa SA enpresarendako

egindako lana da. Joko hori sortzea bururatu zitzaigunean Mamutxa enpresarekin batu ginen, baita Eusko Jaurlaritzarekin ere. Gure proiektua azaldu genien, eta euren laguntza jaso dugu. Biler horietan guztietan egotea egokitu zait niri.

Poltsikoko telefonorako lehen euskarazko jokoa da. Zergatik egin duzue apustu hori?


Egin izan ditugu euskarazko proiektuak, baina aspaldian ez, eta hori genuen buruan. Merkatuaren egoera gogorra da. Besterik egin ez bada zerbaitegatik da. Jokoa gaztelaniaz egin izan bage-nu, seguruenik jende gehiagorengana iritsiko ginatkeen. Horrelako proiektu baten kostua 10.000-20.000 euro inguru da. Irabaziak, ordea, ez dira guztiak guretzat. Proiektu hori aurrera atera bada, Mamutxa enpresaren laguntza eta Eusko Jaurlaritzaren babes jaso ditugulako da. Eta hori, gure borondatez lan handia eginda.

Euskaraz ez dakienak jai dauka joko horrekin?

Ez da horrenbesterako. Jokoa euskaraz da, eta, noski, jokalaria ibilbidean jasotzen dituen pistak ulertu egin behar ditu. Euskara pixka bat ezagututa eta borondatearekin noski joko daitekeela euskaraz ez dakien gazte bat.

"Duela sei hilabete hasi ginen jokoa prestatzen, eta nik ekoizpen eta gidoi lanak egin ditut"

"Euskarazko merkatua gogorra da, eta gutxi batzuek dute hor sartzeko ahalmena"



Pernan Goñik duela bi urte sortu zuen, Bilbon, Animatu enpresa beste bi lagunekin batera.

Teknologia berriak dira Animatu enpresaren lehengaia. Zein lan mota egiten duzue?

Telebistarako marrazki bizidunak egin ditugu; Interneterako, berriz, mugimendudun grafikoak, marrazki bizidun klasi-koak, bi film labur eta serietxo bat.

"Euskal Herrian oso maila handia dago eta jende asko ari da animazioan"

"Telefono modelo bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta jokoa egokitzen ari gara orain"

Oso alor desberdinak dira teknologia aldetik?

Protokoloak ezberdinak dira. Poltsikoko telefonoendako jokoek 100 K baino gutxiago pisatu behar dute. Horrek marrazkiak egiterakoan asko baldintzatzen du. Elementu gutxi eta txikiak behar dira. Telebistarako, berriz, alderantziz. Tamaina zehatz bat errespetatu behar da, baina ahalik eta aberatsen egiten saiatu behar dugu.

Interneterako asko konprimatu behar den proiektu batek kalitatea galtzen du. Trikimailuak dira. Musika egiteko programak ere oso desberdinak dira. Poltsikoko telefonoek aukera gutxi dituzte. Telebistarako, berriz, estudio batera joan behar izaten dugu.

Nola dago animazioaren esparrua Euskal Herrian?

Euskal Herrian maila handia dago eta jende asko aritzen da animazioan. 1997tik hona

gehienak euskaldunak gara. Hor daude Juanma Berasategi eta Begoña Vicario, Goya saria irabazi zutenak. Animatzaile onak daude, baina oso zaila da hau ogibide bihurtzea. Bi edo hiru enpresa handi daude eta eurek dute Euskal Herrian kontsumi daitekeena egiteko ahalmena. Euskal Telebistarentzat marrazki bizidunak egiteko jende asko behar da. Oso onak dira, txapela kentzekoak, baina gure enpresarendako, bost langilekoa, ezinezkoa litzateke. Oso esportazio zaila daukate produktu horiek, eta euskal merkatura mugatzen dira. Ez dugu horrelakorik egiteko gaitasunik.

Ordu estra asko sartzen dituzue, beraz?

Enpresa duela bi urte sortu genuen, hasieran gaude. Etxetik lanera eta lanetik etxera gabiltza. Orain, gutxienez, asteburuak libre ditugu. (Barre) Hori lorpen garrantzitsua da, ez pentsa!

Elurra dela eta, datozen egunotarako utzi dituzte hainbat solasaldi

Arrasateko bi hitzaldi martitzen eta eguaztenera atzeratu dituzte; Eskoriatzako bat etzi, eguaztena, izango da

Leire Kortabarria

Joan den asterako antolatuta zeuden hainbat kultura eta aisialdi hitzordu bertan behera gelditu ziren, elur eta izotz bolada dela eta. Ekitaldi horietako asko datozen egunotan egingo dituzte.

Batik bat hitzaldiak geratu ziren bertan behera, hizlariak ezin izan zutelako lekura joan. Esaterako, Jokin Muñoz 2004ko Euskadi saridunarekin berbal-diak joan den martitzenean izan behar zuen; horren ordez, bihar, otsailak 1, izango da, Arrasateko kultura etxean, 18:30ean. Irakurleek *Bizia lo* bere liburuz berba egiteko aukera izango dute egilearekin.

BI HITZALDI EGUAZTENEAN

Pedro Ramos elikaduran aditu eta irakaslea ere hitzaldia egiteko zen Monterronen. Hori etzira, eguaztenera, 19:30ean, atzeratu dute. Gaitzak prebenitzeko zein elikagai hartzea komeni den azalduko du adituak, beste gai batzuen artean.

Egun bererako, eguaztenerako, finkatu du Eskoriatzako Amuska emakume elkarteak Enriqueta Caballerok hilaren 26an egin behar zuen hitzaldia. Hortaz, astrologiaren eta norberaren ezagutzaren gainean berba egingo du Caballerok Eskoriatzako kultura etxean, 18:30ean.

Kasu horietan, antolatzaileek ekitaldiak bertan behera utzi baina datorren asterako finkatu dute hitzordua. Beste batzuetan, oraingoz ez dago data berririk. Aretxabaletako bi hitzaldirekin hori gertatzen da: eguenean, hilak 27, bi hitzaldi egitekoak ziren, Aizkorri parke naturalaren gainekoa, Udalaren eskutik, eta ibarreko kondaira zaharren gainekoa, Loramendiren eskutik. Biak ere bertan behera geratu ziren.

Hitzorduak



PIRRITX ETA PORROTX ETA ANTZERKI MUSIKATUA, BERGARAN |

Asteburuan izango dira, eta sarrerak dagoeneko salgai ipini dituzte

Hainbat ikuskizun antolatu ditu Bergarako Udal Kultura Sailak datozen egunotarako, Aratuste jaiak direla eta, eta horietarako sarrera txartelak salgai daude alde aurreko salmentan, kultura etxean eta pilotalekuan. Datorren astebururako ikuskizunak dira.

Hain zuzen, hilaren 5ean, zapatua, Pirritx eta Porrotzek *Patata, patata!* ikuskizuna egingo dute pilotalekuan; sarrera 4 euro da. Eta hilaren 6an, domeka, *Hamaika koloretan dantzan* antzerki musikala egingo du Ane Monna Oskola eta Karra-marroi taldeak. Horretarako sarrera 3 euro da.

Labur

Argazkigintza digital, txalaparta eta alboka ikastaroak Arrasaten

Arrasateko Udal Gazteria Sailak argazkigintza digital, txalaparta eta alboka ikastaroak deitu ditu. Otsailean hasiko dira, eta izenemate epea zabalik dago Gazte Bulegoan. Lehenbailehen egin behar da, leku kopuru mugatua dagoelako.

Argazkigintza digital ikastaroa martitzen eta eguenean izango da, 19:00-21:00; txalapartarena, egubakoitzetan eta zapatuetan; eta albokarena, zapatu goizetan, hiru txandatan. Matrikula da 20 euro; 12, ikasle eta langabeendako.

Genealogiaren alde dibertigarriaz hitzaldia egingo dute Bergaran

Genealogiaren gaineko hitzaldia egingo du Francisco de Borja Aginagalde adituak bihar, martitzena, Bergarako Miguel Altuna institutuan, 19:30ean. Genealogiaren alde dibertigarriaz jardungo du; genealogiaz historia sozialaren barne, e.a.



Euskarazko zinema emanaldia izango da bihar, martitzena, Oñatin

Beckham izan nahi dut filma euskaraz ikusteko aukera izango da bihar, martitzena, Oñatiko Santa Ana antzokian, 18:00etan. Erre-suma Batuko filma da, eta euskarazko bertsioa emango dute herri-tar guztiendako. Emanaldia doan izango da. Errekalde Herri Eskolak antolatu du ekitaldi hori, eta horrekin hasiko da bere Kultura Hamabostaldia.

Aurten, Errekalde Herri Eskolak Hamabostaldi berezia egingo du, 25. urteurrena ospatzen diharduelako.

ERAKUSKETAK |

• *Adur, adur, ez naiz hire beldur beldurraren aretoa* Beldurrezko ume literatura-gaineko aretoa bisitatzeko aukera dago Monterronen gaur, astelehena, azkeneko egunez, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

• *Etzoz Gandariasbeitiaren akuarelak, Elgetan* Etzoz Gandariasbeitia margolari bilbotarraren 17 akua-rela ikusgai daude Espaloia kafe antzokian otsailaren 6a bitartean. Euskal Herriaren gaineko akuarelak egiten ditu, baina erakusketan Aratuste jaien gaineko lan batzuk ere badaude.

• *Pello Alberdiren margolanak ikusteko azken eguna* Gaur, astelehena, duzue Pello Alberdi elgetarraren margolan erakusketa ikusteko azken aukera, Masterreka kaleko Nahikari tabernan. Aratustetan, koadrilei ateratako argazkiak ipiniko dituzte, baita www.nahikari.com webgunean ere. Gero, nahi dutenek argazkia eska dezakete.

DEIAK |

• *Tolosako Aratusteetara, Oñatiko erretiratuen eskutik* Otsailaren 8an izango da. Izena emateko, jo Pake Leku egoitzara, astelehen edo eguaztetenan, 18:30-20:00 ordutegian.

ZINEMA |

• *La búsqueda* filma ikusteko aukera gaur Arrasaten Amaia antzokian izango da emanaldia, 19:30ean. Ikuslearen eguna da gaur, astelehena, eta sarrera 3 euro da.

• *Ocean's twelve* filma Bergaran eta Oñatin Novedades aretoan izango da Bergarako emanaldia; Oñatiko, berriz, kultura etxean. Bi emanaldiak gaur, astelehena, 19:30ean izango dira. Bietan ere ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *La niña santa* filma emango dute Bergaran Eguenean, otsailak 3, izango da, 20:00etan, Novedades aretoan, zineklub saioan.

• *Uzak* filma emango dute eguenean Oñatin Kultura etxeko zinema aretoan izango da emanaldia, 20:00etan. Zineklub saioa da.

• *Cold mountain* filma emango dute Elgetan Espaloia kafe antzokian izango da emanaldia etzi, eguaztena, 21:30ean.

• *El rey Arturo* filmaren emanaldia Antzuolan Otsailaren 4an, egubakoitza, emango dute film hori Olanan etxean, 22:00etan. 2 euro da.

• *La terminal* filma emango dute egubakoitzean Aramaion Otsailaren 4an izango da emanaldia kultura etxean 22:30ean.

• *Quentin Tarantinoren bi film emango dituzte Go Jamen* Egubakoitzean, otsailak 4, Quentin Tarantino zuzendariaren *Kill Bill* eta *Kill Bill 2* filmak emango dituzte Bergaran, Go Jam aretoan, 21:00etan. Sarrera doan da. Otsailaren 11n eta 17an ere zineklub emanaldiak izango dira: hurrenez hurren, Alejandro Amenabarreren *Tesis* eta Michael Curtizen *Casablanca* film klasikoa emango dituzte.

LEHIAKETAK |

• *Emakumearen Eguneko kartela aukeratzeko lehiaketa* Martxoaren 8ko kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Arrasateko Udal Emakume Sailak. Leloa da *Martxoak 8: Arrasaten eta Munduan*. Lanak entregatu behar dira otsailaren 16a baino lehen. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.

MUSIKA |

• *Asiako itsasikarak kaltetutakoan aldeko saioa* Egubakoitzean, hilak 4, batera joko dute pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan daude salgai Lazkano oinetako dendan, pilotalekuan eta kultura etxean. Batzen duten dirua Asiako hego-ekialdeko itsasikarak kaltetutakoanda-ko izango da.

Eguraldia



Elurrik ez, baina aste pattala eta ganorarik bakoa izango dugu

Estalita esnatuko da eguna. Laino maskal ugari izango ditugu eta euria ere egin dezake.

da. Eguztenean, gora egingo dute berriz temperaturek eta lehenengo orduetan lainoa egingo duen arren, goizak aurrera egin ahala garbitu egingo du eta eguzkia ere ikusiko dugu.

Eguenari eta egubakoitzari dagokienez, antzekoak izango dira: laino ugari eta tarteka euria ere egingo du.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Table listing pharmacies in Arrasate: Astelehena, 31 Morales Araba etorbidea 14; Martitzena, 1 Ruiz Perez Maalako errabala 31; Eguztana, 2 Zabala Zarugalde 42-44; Eguena, 3 Azkoaga Ferrerrias 1; Egubakoitza, 4 Azkoaga Iturriotz 17.

BERGARA

Table listing pharmacies in Bergara: Astelehena, 31 Estella Matxiategi 5; Martitzena, 1 Mozos Iparragirre 2; Eguztana, 2 Camacho Oxirondo 4; Eguena, 3 Zabala Barrenkale 25; Egubakoitza, 4 Guallar San Antonio 5.

OÑATI

Table listing pharmacies in Oñati: Astelehena, 31 Garate Kale Barria 42; Martitzena, 1 Garate Kale Barria 42; Eguztana, 2 Juldain Kale Barria 6; Eguena, 3 Juldain Kale Barria 6; Egubakoitza, 4 Anduaga San Lorenzo 3.

ARETXABALETA

Table listing pharmacies in Aretxabaleta: Astelehena, 31 Iturralde Mitarte kalea 18; Martitzena, 1 Iturralde Mitarte kalea 18; Eguztana, 2 Iturralde Mitarte kalea 18; Eguena, 3 Iturralde Mitarte kalea 18; Egubakoitza, 4 Iturralde Mitarte kalea 18.

Telefono jakingarriak

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Table listing emergency services: OSAKIDETZA (Larriald.) 943 46 11 11; DYA (Orokorra) 943 46 46 22; DYA (Antzuola) 943 78 71 57; Gurutze Gorria 943 22 22 22; Suhlitzzaileak 943 78 28 00.

Ertzaintza

Table listing police: Arrasate 943 79 71 99; Bergara 943 53 47 20.

Osasun Etxeak

Table listing health centers: Arrasateko Ospital. 943 03 53 00; Antzuola 943 76 62 23; Aramaio 945 44 53 40; Aretxabaleta 943 71 19 59; Bergara 943 03 54 00; Elgeta 943 78 90 27; Eskoriatza 943 71 44 52; Leintz Gatzaga 943 71 47 46; Oñati 943 03 54 30; Hies Ekimena 943 79 26 99.

Udaltzaingoak

Table listing police stations: Antzuola 943 76 62 46; Aramaio 945 44 50 16; Arrasate 943 79 14 39; Aretxabaleta 943 71 18 63.

Table listing phone numbers for Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, and Oñati.

GARRAIOAK

Table listing transport services: Eusko Trenbideak 943 45 01 31; PESA 902 10 12 10; Taxiak; Arrasate 943 79 12 22; Aramaio 945 44 50 33; Aretxabaleta 943 79 22 33; Bergara 943 79 12 22; Eskoriatza 943 71 40 59; Oñati 943 78 03 65; RENFE 943 28 35 99.

DEBAGOIENA

Table listing services in Debagoiena: Mankomunitatea 943 79 33 99; Hilltegia (Zubillaga) 943 78 21 93; Mendi nekazaritza elk. 943 76 25 47; Nekazaritza Ganbera 943 76 10 15; Zerga Bulegoa 943 76 58 63; Euskara Taldeak.

Table listing services: Debagune 943 77 12 28; AED / Arrasate 943 77 12 28; Axtroki / Eskoriatza 943 71 54 34; Goibeko / Elgeta 943 78 90 85; Loramendi / Aretx. 943 77 09 70; Jardun / Bergara 943 76 08 19.

Table listing phone numbers for Laixan / Oñati and Hondakindegia Alternatiiboak.

Table listing phone numbers for Arrasate, Bergara, and Oñati.

Table listing phone numbers for Kiroldegiak: Aramaio 945 44 53 35; Arrasate 943 77 16 77; Aretxabaleta 943 71 26 28; Bergara 943 76 56 41; Elgeta 943 76 82 84; Eskoriatza 943 71 53 28; Oñati 943 71 63 75.

Table listing phone numbers for Kultura Etxeak: Antzuola 943 76 60 65; Aramaio 945 44 53 74; Arrasate 943 77 01 05; Aretxabaleta 943 71 10 27; Bergara 943 77 91 58; Eskoriatza 943 71 46 88; Leintz Gatzaga 943 71 47 46; Oñati 943 78 03 53.

Table listing phone numbers for Udalak: Antzuola 943 76 62 46; Aramaio 945 44 50 16; Arrasate 943 79 09 00; Aretxabaleta 943 71 18 62; Bergara 943 77 91 00; Elgeta 943 76 80 22; Eskoriatza 943 71 44 07; Leintz Gatzaga 943 71 47 46; Oñati 943 78 04 11.

Zozketak

BONOLOTOA

Table for BONOLOTOA: Astelehena, 24 (2, 10, 12, 26, 32, 48); Martitzena, 25 (12, 21, 31, 33, 36, 37); Eguztana, 26 (5, 9, 15, 20, 28, 47); Egubakoitza, 28 (16, 21, 22, 30, 35, 42).

ONCE

Table for ONCE: Astelehena, 24 (18.686); Martitzena, 24 (22.891); Eguztana, 26 (92.027); Eguena, 27 (28.234); Egubakoitza, 28 (08.700); Domeka 30 (61.404).

LOTERIA PRIMITIBOA

Table for LOTERIA PRIMITIBOA: Eguena, 27 (3, 10, 13, 31, 42, 48); Zapatua, 29 (7, 10, 14, 22, 42, 45); Domeka, 30 (3, 15, 17, 25, 28, 49).

Gazte zerbitzuak

BEKAK I

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko beka ezberdinak. Zuzenbide, Dokumentazio eta Humanitate Lizentziaturak.

EKINTZAK I

Elkarteen lege berriari buruzko hitzaldia. Otsailaren 11n, 19:30ean. Gaztegunean.

IKASTAROA I

Elikagaien erabiltzaile ikastaroa. Gipuzkoako Foru Aldundia-CRAJ. Elkartei bideratua. 6 ordu. Egun: apirilak 16. Leku: Gaztegune. Epea: apirilak 13. Askagintza. Drogamenpekotasunen prebentzio komunitarioari buruzko ikastaroa.

Hernaniko Biteri kultura etxean. Epea: Plazak bete arte.

LEHIAKETAK I

Saludactiva. Injuve. 10-18 urte bitartekoentzako bideratua. Saludactiva bere web orrian sartu eta jolasteko lehiaketa bat da. Lehiaketaren helburua osasunaren inguruko ezagutza modu atsegin eta dibertigarrian aberastea da.

LANA I

Administrazio orokorra. Eibarko Udala. Administrazio Orokorreko 2 laguntzaile behar dira udalaren Hiritarren Arretarako Zerbitzurako. Epea: Otsailak 11.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA: Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65 gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA: Kultura etxea. 943 77 91 57 gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA: Foruen plaza 4. 943 71 82 57 gip@oinatigazteleku.com



Antzuola:

- Altzarte okindegia
• Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Maalako okindegia
• Kurruxko okindegia

Arexabaleta:

- Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
• Ibarro Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorenzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Unai Okina
Urtarrilaren 26an,
14urte. Zorionak,
eta muxu handi bat!
Ettxekoak.



ARRASATE
Mime Errasti
Urtarrilaren 29an,
9 urte. Zorionak!
Malen eta lehengusua.



ARRASATE
Rafael Soriano
Urtarrilak 29an 53
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Ettxekoak.



ARRASATE
Gaizka Barrena
Otsailaren 5ean, 7
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Luken lehengusua.



BERGARA
Julian Aiastui
Urtarrilaren 28an
82 urte. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Ettxekoak.



BERGARA
June Igarza
Urtarrilaren 31n 4
urte. Zorionak!
Gurasoak eta
osabak.



BERGARA
Itziar Mujika
Urtarrilaren 31n
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Julen Bilbao
Hilaren 31n 5 urte.
Urte askotarako!
Ettxekoak, bereziki,
Iker eta Gaizka.



ARETXABALETA
Marian Lete
Urtarrilaren 26an
urtebetetzea.
Zorionak!
Okindegiko lagunak.



ARETXABALETA
Mikel Zumalde
Urtarrilaren 27an, 6
urte. Zorionak eta
muxu bat!
Familiakoak.



ARETXABALETA
Josu Aizpurua
Urtarrilaren 30ean
4 urte. Zorionak!
Ettxeko guztiak,
Beñat eta Eñaut.



ELGETA
Gaizka Bolinaga
Urtarrilaren 27an
urteak. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Lagunak.



ELGETA
Aitor Ubera
Urtarrilak 24an
urteak. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Lagunak.



Jaiotakoak



Mikel Etxaniz Zafra
Bergara • 3,400 Kg.
Urtarrilak 23. Gurasoak:
Carlos eta Carmen
(Bergara). Argazkian: Mikel,
guraso eta Jon anaiarekin.



Mainer Bilbao Iñarra
Bergara • 3,555 Kg.
Urtarrilak 23. Gurasoak:
Ibon eta Aran (Bergara).
Argazkian: Mainer lo, bere
pampinarekin.



Enara Kenkou Galdos
Arrasate • 4,000 Kg.
Urtarrilak 25. Gurasoak:
Ammed (Mauritania) eta
Lierni (Arrasate).
Argazkian: amamarekin.



Jokin Dorado Herrera
Bergara • 3,080 Kg.
Urtarrilak 25. Gurasoak:
Luis eta Patricia (Arrasate).
Argazkian: Jokin amarekin
begiak zabal-zabalik.




Uxue Erdozia Betelu
Oñati • 3,300 Kg. Urtarrilak
26. Gurasoak: Gorka
(Gernika) eta Sorkunde
(Oñati). Argazkian: Uxue
aiton-amonekin.



**Oxel Iribecampos
Zubillaga**
Arrasate • 3,523 Kg.
Urtarrilak 26. Gurasoak:
Xabier eta Idoia (Arrasate).
Argazkian: Oxel lotan.



Irati Iriondo Igarza
Bergara • 2,750 Kg.
Urtarrilak 27. Gurasoak: Ion
(Elgoibar) eta Nekane
(Bergara). Argazkian: Irati
amamaren besoetan.



Unax Villar Arias
Arrasate • 3,900 Kg.
Urtarrilak 27. Gurasoak:
Ruben (Ermua) eta Esme
(Arrasate). Argazkian: Unax
anaiaren besoetan.



Danel Nogales Martinez
Arrasate • 3,230 Kg.
Urtarrilak 27. Gurasoak:
Roberto eta Laura
(Arrasate). Argazkian:
Danel lo amaren besoetan.



Andoni Perez Lijo
Bergara • 2,915 Kg.
Urtarrilak 27. Gurasoak:
Jose Antonio eta Amparo
(Bergara). Argazkian:
Andoni aharrasika.



Helene Beitia Altuna
Aramaio • 3,180 Kg.
Urtarrilak 28. Gurasoak:
Jon (Elorrio) eta Bea
(Aramaio). Argazkian:
Helene lo.



Egoi Pujana Cuellar
Arrasate • 3,200 Kg.
Urtarrilak 29. Gurasoak:
Josu (Durango) eta Mariola
(Arrasate). Argazkian: Egoi
amaren besoetan.



Aritz Murua Txintxurreta
Oñati • 3,030 Kg. Urtarrilak
29. Gurasoak: Juan Antonio
eta Maria Jose (Oñati).
Argazkian: Aratz amaren
besoan lo.



Irati Patzeko Lasuen
Arrasate • 2,680 Kg.
Urtarrilak 29. Gurasoak:
Juan (Arrasate) eta Maria
Cristina (Otxandio).
Argazkian: Irati amarekin.

sms mezuzak

- Zorionak Aintzane eta Aitor, zure lankideen partez! Ondo ibili eztei bidaian!
- Aintza eta Aitor ezkondu zarete eta Kubara alde egin ere. Zuek bai zuek jakin noiz. Hemen hotza, izotza eta euria zain! Zuek berriz, eguzkitan berotan atsedenean eta egonean. Disfrutau!
- Zure zain egon nintzen, Txapur! Ordubete plazako arkupetan! Bidali smsren bat, mesedez! Ezin dut horrela jarraitu. Zu ikusi ezean hilko naiz.
- Potxolo! Non sartu zinen zapatu gabaz? Hor aritu ginen tabernetan dantzan! Eta, zu? Ile hori harekin alde egin al zenuen?

Hildakoak

Maria Igartua Odriozola

Oñatin, urtarrilak 27. 71 urte.

Daniela Irastortza Albisu

Antzuolan, urtarrilak 27. 92 urte.

Matilde Quintana Lonbide

Bergaran, urtarrilak 28. 82 urte.

Nieves Imaz Bastarrika

Bergaran, urtarrilak 28. 87 urte.

Rosalía Olañeta Olañeta

Bergaran, urtarrilak 28. 81 urte.

Maria Lizarralde Lizarralde

Oñatin, urtarrilak 29. 89 urte.

Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
**gnkzorion [laga tartea]
[mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo
Asteleheneko Goienkaria-n
irakurri ahal izango du berak
zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Udalaren osoko bilkura eta Azti-begi elkarte

Arrasate Irratiko kazetariak zuzenean jarraituko dute Arrasateko Udalaren osoko bilkura. 10:05ean egingo dute lehenengo konexioa. Horren ostean, Azti-begi elkarteak bultzatu gura duen Euskal Herri mailako irratiairen proiektua izango du berbagai lñaki Altunak.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Eskozia izango dute berbagai herriko irradian

Normalean Oñatin baino hotz handiagoa egiten duen Eskozia bisitatzeko aukera emango dute irratian uhinen bitartez. Urtebetean han bizi izandako Xabi Bikufiak Eskoziaren gaineko hainbat kontu azalduko ditu.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

Eguneko albisteei gainbegiratu sakona

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00, 11:00

Iturengo eta Zubietako Aratusteak, berbagai

Radio Euskadi

FM 98.2

'Bulevar' | 11:30

Islama berbagai, gonbidatu bereziekin

Gaur telebistan

GOITB



Markel Irizar 'Ilunpean' saioan 15:25

Oihana Elortza kazetariak Oñatiko Markel Irizar txirrindularia gonbidatu du *Ilunpean* saiora.

13:50 Marrazki bizi-dunak: *Kalimero*. Kapitulu emango dituzte umeendako eta gazte-txoenendako. **14:15** *Berriak*. Gorka Etxabek gidatutako albistegia. **14:45** *Ilunpean*. Markel Irizar izango da Oihana Elorzaren gonbidatua. **15:15** *Gure lanbide zaharrek*. Klausurako artisauak. **15:45** *Berriak*. Erre-pikapena. **16:15** *Klip@*. Musika taldeen bideoklipak. **19:30** Emisio hasiera. **19:35** *Gaurkoak*. **19:45** *Klip@*. **20:00** *Berriak*. **20:30** Marrazki bizi-dunak. *Kalimero*. **21:00** *Harmailatik*. Julen Iriondok gidatutako kirol saioa. Besterak beste, Arrasateko Ointxe saskibaloi taldeari tarte berezia egingo diote. **22:00** *Berriak*. Deiane Arrietak asteburuak eta egunak eman dituen albisteei laburbilduko ditu. **22:30** *Harmailatik*. Kirol saioaren erre-pikapena. **23:30** *Gaurkoak*. Eguna emandako albisteei izenburuetan. **23:45** Emisio amaiera.

ETB 1



Erreportajeak, Bertatik Bertara saioa 21:05

Estitxu Fernandez aurkezle nafarrak gidatutako saioan, gai askoren gaineko erreportajeak egiten dituzte.

06:50 Tik-Tak circus. **07:20** Betizu. *Doug, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin asper-tua* eta *Euli ipuinak*. **08:55** E-klipse@. **09:20** Travel notes. **09:45** Elkartasunaren bideak. **10:15** Bidaide. **12:00** Bertatik bertara. **12:30** Hitzetik hortzera. **13:05** Barne barne-tik. *Ormaiztegi*. **13:35** Betizu. *Sherezade printzesa*. **14:00** Gaur egun 1. **14:40** Postdata. **14:45** Eguraldia. **14:50** Hasiberriak. **15:15** Bidaide. *Leihok* eta *Paradisu biziak*. **17:00** Sautrela. **17:35** E-klipse@. **18:00** Iparraldearen orena. **18:05** Betizu. *Bee-kerekeak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen* eta *Shin Chan*. **20:20** Eguraldia. **20:28** Gaur egun. **21:05** Bertatik bertara. **21:45** Goenkale. **22:20** Ze kosmopolita. **23:35** Erreskate taldea. **00:25** Teknopolis. **00:55** Eguna iruditana. **01:00** Postdata.

ETB 2



'El conquistador del fin del mundo' 21:55

Julian lantzik gidatzen duen lehiaketa berria, proba gogorrek egin beharko dituzte hainbat protagonistak.

06:30 Del país de los vascos. Koldo San Sebastianekin. *Donejakue bidea Bizkaitik*. **07:45** Rutas de solidaridad. *Venezuela I*. **08:05** Los hombres de Harrelson. *La embusterá*. **09:00** Forum. David Barberorekin. **09:30** El punto. Juan Luis Bikufiarekin. **10:05** Cosas de casa. **11:15** Stargate. *La malición*. **12:15** Se ha escrito un crimen. **13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin. **14:58** Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua. **15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin. **16:00** Pasalo. Adela Gonzalez eta lñaki Lopezekin. **18:25** Siempre cine. Zehaztu bariko filma. **20:10** Esta es mi gente. Klaudio Landarekin. **20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrearekin. **21:50** Eguraldia. **21:55** El conquistador del fin del mundo. Julian lantzik aurkeztutako lehiaketa. **23:55** El día en imágenes. **00:00** El divan de Julian. **01:30** Reportaje. *Chicos guapos*.

TVE 1



Florentino Fernandez umorea saioa 22:00

Florentino Fernandez aurkezle gazteak gidatzen duen *Splungesaio*-an esketx komikoak egiten dituzte.

06:00 Canal24 horas. **07:00** Telediario matinal. Igor Gomeze-ekin eta Susana Rozare-ekin. **09:00** Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin. **10:15** Saber vivir. **11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. **14:00** Informativo territorial. **14:30** Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartiburrekin. **15:00** Telediario 1. **15:55** El tiempo. **16:00** Obsesión. Telesaila. **17:00** Te voy a enseñar a querer. **18:00** Smalville. **19:15** Esto es vida. **20:00** Gente. **21:00** Telediario 2. **21:55** El tiempo. **22:00** Splunge. Florentino Fernandezek gidatutako umorezko saioa. Pertsonai ezagunak elkarrizketatuko dituzte. **23:00** Cruz y raya.com. Erre-pikapena. **23:40** 59 segundos. **01:30** Telediario 3. **02:00** Deporte.es. **02:30** El ala oeste de la Casa Blanca. **03:30** Canal24 horas.

La 2



Bazkalosteko dokumentalen garrantzia saioa 15:45

Ohiko telebista kateetan ikus daitezkeen programez gain, naturaren gaineko dokumentalak ere badaude.

07:30 Los Lunnis. *Tom, Aventuras en pañales* eta *Tweenies*. **09:30** Aquí hay trabajo. **10:00** La aventura del saber. **11:00** La botica de la abuela. **11:15** España.es. **13:00** Los Lunnis. *Digimon, Artur, Los Lunnis* eta *Los minimonstruos*. **15:15** Saber y ganar. **15:45** Grandes documentales. *Redes salvas*. **15:50** Grandes documentales. *Vida en la isla*. **16:55** Frontera lfmite. **17:30** Los Lunnis. *Los Lunnis, Pato Bill* eta *Misión Odisea*. **19:15** Padres en apuros. **19:30** Pueblo de Dios. *Malawi, el árbol de las plumas*. **20:00** Informativo territorial. **20:25** Pirena. **20:30** Dag. **21:00** Vivir con Mr. Cooper. **21:30** Miradas 2. **21:55** Sorteo de la Bonoloto. **22:00** La 2. Noticias. **22:30** El tiempo. **22:35** Crónicas. **23:30** Estravagario. **00:30** Metropolis. **01:00** Los conciertos de Radio 3.

Antena 3



Bitxikeriak 'El diario de Patricia'-n saioa 19:00

Norberaren arazoak ahazteko asmoz, Patricia Gaztañagak hainbat gonbidatu izaten ditueurenak kontatzen.

06:00 Las noticias de la mañana. **09:00** Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa. **10:45** Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertulietak eta lehiaketak egiten dituzte. **14:30** Los Simpson. *Detrás de las risas*. **15:00** Noticias 1. **15:45** Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena. **17:00** La vida en rosa. **18:00** Números locos. **19:00** El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin. **20:15** Pasapalabra. Kultura orokorraren gaineko lehiaketa dibertigarria. Silvia Jatok aurkeztuta. **21:00** Noticias 2. **21:45** El peliclón. *Chacal*. Benetako pertsonai baten oinarritutako akziozko filma. Protagonistak, besteak beste, honako hauek dira: Bruce Willis, Richard Gere eta Sydney Poitier. **00:30** 7 días, 7 noches. **02:00** Noticias 3. **02:20** Televenta. **05:00** Repeticiones.

Tele 5



'Crónicas Marcianas', aukeran saioa 00:00

Sortu zenetik Javier Sardak gidatzen duen saio bitxia gaueko programazioaren alternatibia bakarra da.

06:30 Informativos Telectinco matinal. **09:10** La mirada crítica. Vicente Vallesek. **10:45** El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute. **14:30** Informativos Telectinco. Hilario Pino eta Carme Chaparronekin. **15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin. **16:30** Gran hermano VIP. **17:30** A tu lado. Emma Garciaekin. **19:35** Alla tú. Jesus Vazquezekin. **20:30** Informativos Telectinco. Angels Barceló eta Agustín Hernández. **21:30** Pecado original. **22:00** C.S.I. Miami. *No aterrizar*. **23:00** Diario de... Un gladiador. **00:00** Cronicas marcianas. **02:20** Informativos Telectinco. **02:45** Madrugada de cine. *Yo y yo misma*. **04:15** Infocomerciales. **06:15** Nocturnos.

Astean GOITBn

Astlehena, 31



'Harmailatik' | 21:00, 23:00

Arrasate Ointxe saskibaloi taldea

Asteburuak eman dituen kirol kontuak zabal emateaz gain, Julen Iriondok Arrasate Ointxe saskibaloi taldeari tarte berezia eskainiko dio *Harmailatik* saioan.

Martitzena, 1



'Danbaka' | 21:00

Potemkin taldearen finaleko kontzertua

Oñatiko Potemkin taldeak Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako finalean, Elgetako Espaloia Antzokia, egin zuen kontzertu basatia oso-osorik emango dute.

Eguaztena, 2



'Mandio' | 21:30

Ikurrinaren legeztatzearen gainekoa

Goiatz Arana kazetariak Ikurrina legeztatutako garai historikoren gaineko erreportajea egin du. Garai historiko hartako protagonistak elkarrizketatu ditu.

Eguena, 3



'Oinak Izarretan' | 21:30

Picos de Europako mendietan ibiliko dira

Leire Agirre eta Jon Beloki eskalataileak Picos de Europako mendien bihotzean ibiliko dira; Naranco de Bulnesen, hain zuzen ere. Irudiak ikusgarriak izango dira.

Egubakoitza, 4



'Ilunpean' | 21:00

Loli Astoreka aktorea elkarrizketatuko dute

Oihana Elortza kazetariak Loli Astoreka aktore errigoitiarra elkarrizketatuko du *Ilunpean* saioan. Astoreka euskal aktore beteranoetako bat da, eta *saltsera* hutsa.

Urtarrilaren 31a: 029 zozketa

Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 31, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan bada, **ZORIONAK!**

EIBAR-MALAGA B FUTBOL PARTIDUA ikusteko lau sarrera; saridun bakoitzarendako bina.

- Iratxe Zeziaga Mendizabal (Arrasate)
- Josu Errasti Jauregi (Antzuola)

'ASTO BAT HYPODROMOAN' liburua

- Asier Gabilondo Markes (Eskoriatza)

'Nairobitarra' mundua ezaqutzeko haur jolasa

- Igor Larrañaga Ortueta (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Amaia Eguren (Bergara)
- Roberto Maiztegi Rigault (Oñati)


'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN' liburua

- Iñaki Olabarria Arana (Bergara)

Otsailaren 7ko sariak

- 2005eko ARGIA-ren sei egutegi.

- Bi gonbidapen **IGANDETAN PIRATEK JAI** umeendako antzerkia ikusteko, *Markeliñe* taldearen eskutik. Elgetako Espaloia antzokian.



- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bina).

Kike Amonarrizen
'888 TXISTE'
LIBURUA
Argia argitaletxearen eskutik





Hamarrekoa

ANDER RODRIGUEZ | EZKER BATUKO ZINEGOTZI ARRASATEARRA

"Madrado mezetara joaten dela esan nionetik, botoa emango digula dio amak"

Maria Agirre

1. Atzo hauteskundeak iraken. Hauteskunde inpartzialak izan dira, Ameriketako Estatu Batuek zuzendutakoak. Emaizta ez da erreala.

2. Zenbat urterekin sartu zinen Ezker Batuan? 18 urte bete bezain laster afiliatu nintzen. Alderdi horretako ideiekin identifikatzen nintzen.

3. Gurasoen etxean bizi zara? Etxetik irteteko gogorik? Amarekin bizi naiz; aita joan den azaroan hil zen. Seme bakarra naizenez, uste dut orain amarekin egon behar dudala. Epe motzera begira, behintzat, ez dut nire burua etxetik kanpo ikusten.

4. Zure amari zer iruditzen zaio semea zinegotzi izatea? Kontu hori gaizki darama, beldurra ematen dio. Gainera, iraultzailegia naizela dio. Pentsa, udal hauteskundeetan ez zidan botorik eman! Baina hurrengoan baietz dio. Madrado domekero mezetara joaten dela esan nionetik, botoa Ezker Batuari emateko gertu dago ama.

5. Arrasateko Udaleko osoko bilkuretan sekulako berbaldiak egiten dituzu. Historiako eskolak ematen dituzula esan didate. (Barre) A, bai! Gaur, astelehena, osoko bilkura daukagu eta Europako Konstituzioaren inguruan luze hitz egiteko asmoa daukat. Ezker Batuak ezezkoren alde zergatik egingo duen azalduko dut. Presta daitezela gainerako zinegotziak!

6. Etorkizuneko Oscar Matute? Ez dut uste haren mailarik dudarik. Antzik ere ez! Hala ere, niretzat erreferente bat da, baina baita Martin Calvo ere.

7. Musika oso gustuko duzu. Zein talde? Doctor Deseo, REM, Fito, Mikel Urdangarin... Gitarra ere jotzen dut. Bueno, ikasten ari naiz. Estresa kentzeko oso ona da. Edoze-lan ere, jendaurrean ez nuke inoiz joko. Lotsa eta beldurra ematen dit.

8. Zinegotzi izateak balio du ligatzeko orduan? Batere ez. Segituan alde egiten dute zinegotzi zarela esanez gero. Ez du ligatzeko balio; ez, horixe!



XABIER URTZELAI

Debagoieneko zinegotzi gazteena da Ander Rodriguez, 22 urte ditu. Arrasateko Udalean Ezker Batua alderdiko zinegotzia da, baina gaztea izanik ikasten ere ari da. Udaletxean egin genuen hitzordua, eta Irakeko egoeraren gaineko liburu bat irakurtzen topatu genuen. Ander Iraken izan zen gerra hasi zenean. Horregatik, hauteskundeak aipatu behar ezertan hasi baino lehen.

9. Arrasateko gaztetxean noiz azkeneko aldiz? Duela oso egun gutxi, bilera nuen-eta bertan. Bestela, Marea taldearen kontzertuan; eta hura ere duela hilabete gutxi izan zen.

10. Historia ikasten ari zarenez, gustuko koak aipatu. Uf... Utzi pentsatzen... Marx, Kant, Bertol Brecht eta Galileo. Hark esan zuen: "Eta hala ere mugitu egiten da".



Biharamuna

Edu Mendibil

Ezkontzak & banaketak

Lankideaz gain, lagun eta konfessore daukadan Aintzane Irizar ezkondu zitzaigun zapatuan, Antzuolan. Ez nuen ospakizunera hurbiltzerik izan, nire alaba besoetako Norak bere urtebetetze festara gonbidatu gintuelako.

Zorionez, elurrak ez zuen ospakizuna zapuztu eta Aintzane eta Aitorren familiartekoak eta lagunak iritsi ahal izan ziren Antzuolara, baita Mandubira bazkaltzera ere. Mendiko botak beharrean, takoidun botak jantzi ahal izan zituen Aintzane, eta, lagunek kontatu didatenez, begiak distiratsuak zeuzkan. Seinale ona.

Domekan Reala ikusten egon nintzen. Hotz egiten zuen Donostian eta izoztuta atera ginen Anetatik, emaitzagatik jakina. Txarrena zera da: badirudi taldearen, zaleen eta zuzendaritzaren arteko harremana banaketaren atarian dagoela.

Eta, gaur, astelehena, gurean hotza jasaten dugun bitartean, Aitor eta Aintzane Karibe aldean ibiliko dira, bero-bero. Postaltxo bat bidaltzeko agindu nion Aintzani, baina ez daukat jasotzeko esperantza handirik; zaila den arren, Correos baino okerrago dabil Kubako posta zerbitzua. Han izan nintzenez ez ziren heldu nik bidalitako postalak. Agian, haietako bat edo beste Fidel komandantearekiko zirikatzaileak zirelako. Egia esateko, eszeptikoa naiz Kubako egoerarekin: *Patria o muerte... venceran los de siempre*, futbole-an moduan.

35 €

Egin zaitetz harpidedun
eta 2005ean
etxean jasoko duzu
Asteleheneko Goienkaria.
Dei bat egin eta kitto!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Asteleheneetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa